Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: V62A-JWF2-IDQP-G6M8
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| gauzatutako aurrekontuan. BEZa berreskuratu ezin duten entitate onuradunen kasuan, gastutzat hartuko da tributu hori; aipatutako erakundeek egiaztatu egin beharko dute egoera hori Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailaren ziurtagiri baten bidez. Era berean, ez dira diruz laguntzeko gastutzat joko errentaren gaineko zerga pertsonalak. | En el caso de entidades beneficiarias en las que el IVA no sea recuperable, se considerará gasto y deberán acreditarlo mediante certificación del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia. De igual manera, tampoco resultarán gasto subvencionable los impuestos personales sobre la renta. |
| g) Eskatzaileak aurkeztutako aurrekontuan artikulu honen arabera diruz laguntzekoak ez diren gastuak badaude, neurriz kanpokoak direlako edo proiektu komunikatiboarekin zuzenean lotuta ez daudelako, organo kudeatzaileak ezabatu edo araztu egingo ditu, hartara, dirulaguntza kalkulatzeko oinarri izango den diruz laguntzeko moduko gastuen aurrekontua zehazteko. | g) En el caso de que el presupuesto presentado por la persona solicitante incluyera gastos considerados como no subvencionables en el presente artículo, por resultar desproporcionados o no estar directamente relacionados con el proyecto comunicativo, el órgano gestor procederá a su eliminación o depuración. al objeto de determinar el presupuesto de gastos subvencionable que servirá de base para el cálculo de la subvención. |
| h) Oro har, maiatzaren 5/2005 Foru Arauaren 29. artikuluarekin bat etorrita, beren-beregi kanpo utzitakoak. | h) En general, los que resultan expresamente excluidos conforme al artículo 29 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo. |
| i) Enpresen kasuan, enpresa onuradunak merkataritza-eragiketetan egin dituen diruz laguntzeko moduko gastuek berankortasunari buruz aplikatzekoa den araudian aurreikusitako ordainketa-epeetan ordainduta egon beharko dute. | i) En el caso de empresas, los gastos subvencionables en los que haya incurrido la empresa beneficiaria en sus operaciones comerciales deberán haber sido abonados en los plazos de pago previstos en la normativa sobre morosidad que resulte de aplicación. |
| 5. Foru-dekretu honen helburua da eskatzaileen ekintzak babestu eta osatzea. Inola ere ez da helburua jarduera egiteagatik sortutako gastu guztiak finantzatzea. Hori dela eta, jarraian zehazten diren finantzaketa-mugak bete beharko dira. Onuradunak bere gain hartu beharko du argitalpenaren finantzaketaren % 20, gutxienez, dirulaguntza-eskaera aurkezteko epea amaitzen denean lehen zenbakia argitaratu zutenetik jarduera profesionalean urtebete edo gehiago egin duten argitalpenen kasuan, eta ehuneko bera jardun profesionalean urtebete baino gutxiago eman duten argitalpenen kasuan. Finantzaketa propioaren maila horretara iristen ez diren argitalpenek ezin izango dute deialdi honetan parte hartu, eta, ondorioz, kanpoan geratuko dira. | 5. La finalidad del presente decreto foral será la de apoyar y completar la acción de las solicitantes, en ningún caso la de financiar en su totalidad los gastos derivados de la ejecución de la actividad, por lo que deberán cumplirse los límites de financiación que se indican a continuación. La beneficiaria deberá asumir como mínimo el 20 % de la financiación de la publicación, tanto en el caso de publicaciones que a la finalización de la fecha de presentación de solicitudes de subvención tengan una trayectoria igual o superior a un año desde la publicación de su primer número, como en el caso de que dicha trayectoria sea inferior a un año. Aquellas publicaciones que no alcancen ese grado de financiación propia no podrán acceder a la convocatoria de ayudas y, consecuentemente, quedarán excluidas. |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: V62A-JWF2-IDQP-G6M8
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| Finantzaketa propioaren ehuneko hori entitate edo pertsona eskatzaileak eskaeran aurkeztutako aurrekontuaren gainean kalkulatuko da, eragiketa honen bidez: dirulaguntza publiko ez diren sarrera guztiak (entitatearen beraren ekarpenak, salmentak, publizitatea, babesleak, entitate pribatuek egindako sarrerak, etab.) zati diru-sarrera guztiak. Finantzaketa propioaren gutxieneko ehunekoa dirulaguntzaren justifikazioan ere bermatu beharko da. | El porcentaje de financiación propia se calculará sobre el presupuesto presentado por la entidad o persona solicitante en su solicitud, dividiendo todos los ingresos que no procedan de subvenciones públicas (es decir, como ejemplo, aportaciones de la propia entidad, ventas, publicidad, patrocinios, ingresos de entidades privadas, etc.) sobre los ingresos totales. El porcentaje mínimo de financiación propia habrá de garantizarse, asimismo, en la justificación de la subvención. |
| | |
| 2. oinarria. *Pertsona eta entitate onuradunak.* | Base 2. *Personas y entidades beneficiarias.* |
| 1. Bizkaiko Lurralde Historikoan proiektu komunikatiboak garatzen dituzten Bizkaiko merkataritza-sozietateak, kooperatiba-sozietateak, banakako enpresaburuak, profesionalak eta irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuak izan daitezke foru-dekretu honetan araututako dirulaguntzen onuradun, baldin eta ez badaude onuradun ez izateko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan jasotako egoeretako batean ere eta honako baldintza hauek betetzen badituzte: | 1. Podrán beneficiarse de las subvenciones reguladas por el presente decreto foral las sociedades mercantiles, sociedades cooperativas, personas empresarias individuales, profesionales y las personas jurídicas privadas sin ánimo de lucro del Territorio Histórico de Bizkaia que desarrollen proyectos comunicativos en euskera en dicho territorio y que, no estando incursas en las causas del artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, reúnan los siguientes requisitos: |
| a) Egoitza soziala Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.<br><br>b) Dagokion erregistroan inskribatuta egotea (pertsona fisikoen kasuan izan ezik).<br><br>Eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira betekizun horiek guztiak. Halaber, prozeduran zehar ere bete behar dira, dirulaguntzaren justifikazioa aurkeztu arte.<br><br>c) Proiektu komunikatiboa aurkezten duen entitateak, edozein dela ere bere izaera juridikoa, berariaz agerrarazi beharko du bere estatutuetan, eratze-agirietan edo beste dokumentu ofizial batean bere eginkizunak direla euskarazko edukiak sortzea eta zabaltzea edo euskararen normalizazioaren alde egitea, edo | a) Tener el domicilio social en el Territorio Histórico de Bizkaia.<br><br>b) Encontrarse inscritas en el Registro correspondiente (excepto las personas físicas).<br><br>Los requisitos deberán poseerse el día que finalice el plazo de presentación de las solicitudes. Asimismo, deberán mantenerse todos ellos durante todo el procedimiento, hasta el momento de la entrega de la justificación de la subvención.<br><br>c) La entidad que presente el proyecto comunicativo, sea cual sea su naturaleza jurídica, deberá hacer constar expresamente en sus estatutos, creaciones u otro documento oficial que sus funciones son la creación y difusión de contenidos en euskera o la iniciativa a favor de la normalización del euskera o medio de |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: V62A-JWF2-IDQP-G6M8
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| euskarazko hedabidea dela. Pertsona fisikoek dagokion aitorpenaren bidez agerrarazi beharko dute hori. | comunicación en euskera. Las personas físicas habrán de hacerlo a través de la declaración correspondiente. |
| 2. Horrez gainera, pertsona fisiko eta juridikoek ezin izango dute dirulaguntzak emateko prozesu honetan parte hartu eta onuradun izan baldin eta: | 2. Asimismo, no podrán concurrir ni resultar beneficiarias de subvención las personas físicas y jurídicas: |
| a) Sexuarengatik edonolako diskriminaziorik sortzeagatik edo berdintasunaren arloan indarrean dagoen araudia ez betetzeagatik zehapen administratibo, laboral edo penalen bat jaso badute, zehapenean ezarritako epean zehar. | a) Que hayan sido objeto de sanción administrativa, laboral o penal por incurrir en discriminación por razón de sexo, durante el período impuesto en la correspondiente sanción o por incumplimiento de la normativa vigente en materia de igualdad. |
| b) Beren helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduketa, antolaketa edo estatutuak emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aurkakoak badira. | b) Cuyos fines u objetivos, sistema de admisión o acceso, funcionamiento, trayectoria, actuación, organización o estatutos sean contrarios al principio de igualdad de mujeres y hombres. |
| c) LGTBI pertsonak eta beste kolektibo batzuetako pertsonak diskriminatzeagatik edo tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloan indarrean dagoen araudia ez betetzeagatik zehapen administratibo edo penalen bat jaso badute, zehapenean ezarritako epean zehar. | c) Que hayan sido objeto de sanción administrativa o penal por incurrir en discriminación de las personas LGTBI y de otros colectivos, durante el periodo impuesto en la correspondiente sanción o por incumplimiento de la normativa vigente de igualdad de trato y no discriminación. |
| d) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudian ezarritako baldintzetan, berdintasun-planak eta sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu-indarkeriak prebenitzeko eta halakoei aurre egiteko neurriak jasotzen dituzten protokoloak eta/edo dokumentuak izateko betebeharra bete ez badute. | d) Que no cumplan con la obligación de disponer de planes de igualdad y protocolos y/o documentos que recojan las medidas para prevenir y combatir el acoso sexual, el acoso por razón de sexo y las violencias sexuales en los términos establecidos por la normativa en materia de igualdad de mujeres y hombres. |
| 3. Azkenik, foru-dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo daude honako hauek:<br><br>a) Ondarean administrazio publiko baten edo gehiagoren partaidetza duten entitateak.<br><br>b) Kapitala gehienbat publikoa duten entitateak eta ondare fundazionala edo gobernu- edo zuzendaritza-organoetako partaidetza gehienbat publikoa dutenak. | 3. Por último, quedan excluidas del ámbito de aplicación del presente decreto foral:<br><br>a) Las entidades en cuyo patrimonio exista participación de una o de varias administraciones públicas.<br><br>b) Las entidades cuyo capital sea mayoritariamente público y aquellas cuyo patrimonio fundacional o cuya participación en los órganos de gobierno o dirección sea mayoritariamente pública. |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: V62A-JWF2-IDQP-G6M8
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| c) Unibertsitate publikoak.<br><br>d) Eusko Jaurlaritzaren eta hiru euskal foru-aldundien artean une honetan izapidetzen ari den eta 2025-2028 aldirako sinatuko den esparru-hitzarmenaren arloan diruz lagun daitezkeen proiektu komunikatiboen entitate titularrak (ikus 1.3.l oinarria).<br><br>e) 30.000 eurotik gorako dirulaguntzetarako, eta soilik irabazi-asmoa duten pertsona fisiko edo juridikoen kasuan, ezin izango dira onuradun izan berankortasunaren arloan aplikatzekoa zaien araudia betetzen ez dutenak. Ildo horretan, egiaztatu beharko dute aipatutako araudia betetzen dutela Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12.3 bis artikuluan (Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2024ko aurrekontu orokorrei buruzko abenduaren 29ko 10/2023 Foru Arauaren hamabigarren xedapen gehigarriak emandako idazketan) xedatzen diren baldintzetan.<br><br>Hala, 30.000 eurotik gorako dirulaguntzaren bat jasotzen duten pertsona fisiko edo juridiko horiek galdu-irabazien kontu laburtua aurkez dezaketen ala ez, era desberdinetara egiaztatu beharko dute araudia betetzen dutela: galdu-irabazien kontu laburtua aurkez badezakete, erantzukizunpeko adierazpen baten bidez; ezin badute, auditoreak emandako ziurtagiriaren bidez edo «Adostutako Prozeduren Txostena»ren bidez (guztiak ere, aipatutako 5/2005 Foru Arauaren 12.3.bis artikuluan ezarritako eskakizunak). | c) Las universidades públicas.<br><br>d) Las entidades titulares de proyectos comunicativos subvencionables en el marco del Convenio Marco que se suscriba entre el Gobierno Vasco y las tres diputaciones forales vascas, correspondiente al periodo 2025-2028, actualmente en tramitación (ver Base 1.3.l).<br><br>e) Para las subvenciones superiores a 30.000 euros, y únicamente en el caso de personas físicas o jurídicas con ánimo de lucro, no podrán obtener la condición de beneficiaria aquellas que no cumplan con la normativa en materia de morosidad que les resultare aplicable. En este sentido, deberán acreditar cumplir la citada normativa en los términos dispuestos en el artículo 12.3.bis de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el Régimen Jurídico General de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral, en su redacción dada por la Disposición Adicional Duodécima de la Norma Foral 10/2023, de 29 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2024.<br><br>Así, estas personas físicas o jurídicas con ánimo de lucro que recibieran una subvención superior a 30.000 euros, deberán acreditar dicho cumplimiento de forma distinta, según puedan o no presentar cuenta de pérdidas y ganancias abreviada conforme a la normativa contable: si pudieran presentar cuenta de pérdidas y ganancias abreviada, a través de una declaración responsable; si no pudieran, a través de la certificación de persona auditora, o «Informe de Procedimientos Acordados», requeridos por el citado artículo 12.3.bis de la Norma Foral 5/2005. |
| | |
| II. TITULUA | TITULO II |
| Araubide juridikoa | Régimen jurídico |
| | |
| 3. oinarria. *Aplikatu beharreko araudia.* | Base 3. *Normativa aplicable.* |



Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: V62A-JWF2-IDQP-G6M8
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: V62A-JWF2-IDQP-G6M8
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| Foru-dekretu honetan jasota ez dagoenerako, honako hauek aplikatuko dira: Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua; martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Erregelamendua; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea; 4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikoaren esparruan Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala arautzen duena; 311/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa, Segurtasuneko Eskema Nazionala arautzen duena, eta beste edozein xedapen arauemaile, duen izaeragatik aplikatu beharrekoa baldin bada. | Para todos aquellos aspectos no previstos en el presente decreto foral serán aplicables la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, y el Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, así como la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, el Real Decreto 4/2010, de 8 de enero, por el que se regula el Esquema Nacional de Interoperabilidad en el ámbito de la Administración Electrónica, el Real Decreto 311/2022, de 3 de mayo, por el que se regula el Esquema Nacional de Seguridad y cualquier otra disposición normativa que por su naturaleza pudiera resultar de aplicación. |
| Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua entitate pribatu hauei aplikatuko zaie: aurrekontu-ekitaldian zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euroren edo gehiagoren laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituztenei edo urteko diru-sarreren % 40 Aldundiaren laguntzetatik edo dirulaguntzetatik datozkienei, baldin eta sarrerok, gutxienez, 5.000 eurora heltzen badira. | La Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, les será de aplicación a aquellas entidades privadas que durante un ejercicio presupuestario perciban de la Diputación Foral de Bizkaia ayudas o subvenciones que alcancen al menos una cuantía de 100.000 euros o cuando el 40 % del total de sus ingresos anuales tengan el carácter de ayuda o subvención pública foral, siempre que alcancen como mínimo 5.000 euros. |
| | |
| 4. oinarria. *Arau-hausteak eta zehapenak.* | Base 4. *Infracciones y sanciones.* |
| Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan xedatutakoa ezarriko da, baita arau hori garatzen duen erregelamenduaren IV. titulua ere. | En lo referente a infracciones y sanciones, se aplicará lo establecido en el Título IV de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, y en el Título IV del Reglamento de desarrollo de esta. |
| | |
| III. TITULUA | TITULO III |
| **Prozedura** | **Procedimiento** |
| | |

| | |
|---|---|
| 5. oinarria. *Eskabideak aurkezteko lekua eta epea.* | Base 5. *Lugar y plazo de presentación de las solicitudes*. |
| 1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan xedatutakoaren arabera, dirulaguntzetarako eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira:<br><br>https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera | 1. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 14 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, las solicitudes de subvención deberán presentarse a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia:<br><br>https://www.ebizkaia.eus/es/inicio |
| Egoitza elektronikoko izapideen katalogoan dago foru-dekretu honen laburpen-fitxa. | En el catalogo de trámites de la sede electrónica se encuentra la ficha resumen del presente decreto foral. |
| 2. Eskabideak aurkezteko epea 2025eko irailaren 15ean hasiko da eta 2025eko irailaren 29ko 13:30ean amaituko da. | 2. El plazo para la presentación de solicitudes será desde el 15 de septiembre de 2025 hasta el 29 de septiembre de 2025 a las 13:30. |
| | |
| 6. oinarria. *Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak eta baldintzak.* | Base 6. *Documentación a adjuntar a la solicitud y requisitos.* |
| 1. Eskabideak aurkezteko, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan bete eta aurkezteko dauden eredu ofizialak erabili behar dira, 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan ezarritakoarekin bat:<br><br>https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera | 1. Las solicitudes deberán ajustarse a los modelos oficiales disponible para su cumplimentación y presentación en la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia de acuerdo con lo previsto en el artículo 66.6 de la Ley 39/2015:<br><br>https://www.ebizkaia.eus/es/inicio |
| 2. Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:<br><br>a) Estatutuak edo, hala badagokio, entitatea eratu izana egiaztatzen duten agiriak, non egoitza soziala agertuko baita. Agiri horietan egiaztatuko da, 2.1.c) oinarriarekin bat etorrita, bere eginkizunak direla euskarazko edukiak sortzea eta zabaltzea edo euskararen normalizazioaren alde egitea, edo euskarazko hedabidea dela. Pertsona fisikoek dagokion aitorpenaren bidez agerrarazi beharko dute hori.<br><br>b) Dagokion erregistroan inskribatuta egotearen ziurtagiria. | 2. Las solicitudes deberán ir acompañadas de la siguiente documentación:<br><br>a) Estatutos o documentación acreditativa de su constitución, en su caso, en la que figurará su domicilio social. En esta documentación se acreditará, conforme a la Base 2.1.c), que sus funciones son la creación y difusión de contenidos en euskera o la iniciativa a favor de la normalización del euskera o medio de comunicación en euskera. Las personas físicas habrán de hacerlo a través de la declaración correspondiente.<br><br>b) Certificado de inscripción en el Registro correspondiente. |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: V62A-JWF2-IDQP-G6M8
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| Aurreko apartatuetan aipatutako dokumentazioa ez da aurkeztu beharko baldin eta aurretiaz aurkeztu bada eta ez bada aldaketarik egon azken hiru urteetan. | No se aportará la documentación indicada en los apartados anteriores en caso de haber sido presentada con anterioridad, y siempre que no hubiera sufrido modificación alguna durante los últimos tres años. |
| c) Erredakzio-taldean kazetaritza-lana egingo duen pertsonaren kontratua, lan horiek egingo dituela egiaztatzeko, 1.1.a.6) oinarriarekin bat etorrita. | c) Contrato mediante el cual se acredite la labor periodística de la persona del equipo de redacción que realice tales funciones, de conformidad con la Base 1.1.a.6.º. |
| d) 2025-2028 aldirako negozio-plana. | d) Plan de negocio 2025-2028. |
| e) Diruz laguntzeko proiektua azaltzeko memoria, egoitza elektronikoan jarriko den ereduaren arabera idatzita. Bertan, epaimahai kalifikatzaileak dagokion puntuazioa kalkulatzeko ebaluatu beharko dituen irizpideak jasoko dira. | e) Memoria explicativa del proyecto subvencionable, redactada de conformidad con el modelo habilitado en sede electrónica, y que contendrá los criterios que deberá evaluar el tribunal calificador para calcular la puntuación correspondiente. |
| f) Aurreko agiriez gain, honako hauek ere aurkeztu beharko dira, beren beregi: | f) Además de la documentación anterior, habrá de aportarse específicamente la siguiente: |
| 1) Proiektu komunikatiboek jarduera nagusia paperean eta digitalki egiten badute: | 1.º Si la actividad principal del proyecto comunicativo es en papel y digital: |
| - Proiektu komunikatiboa osatzen duen goiburuaren bertsio digitalean argitaratutako edukien (albiste idatzien eta ikus-entzunezkoen) zerrenda (eduki bakoitzaren argitalpen-data eta guzti), 2025 ekitaldiari dagokiona, diruz laguntzeko proiektu izateko ezaugarriak betetzen dituen egiaztatzeko; proiektua goiburu batek baino gehiagok osatuz gero, edukiak goiburuka banatuta agertu beharko dira zerrendan. | - Listado, correspondiente al ejercicio 2025, de los contenidos (noticias escritas y audiovisuales) publicados (y fecha de publicación) en la versión digital de la cabecera o cabeceras que conforman el proyecto comunicativo (separados por cabecera, si el proyecto lo conformaran varias), con el objeto de verificar sus características como proyecto subvencionable. |
| - Bisitak eta bisitariak neurtzeko kontagailurako sarbidea. | - Acceso al contador de visitas y visitantes. |
| - Domeinua erregistratu izanaren ziurtagiria. Domeinuak eskatzaileak bere izenean erregistratuta egon behar du. | - Certificado de registro del dominio. La titularidad del registro de dominio debe figurar a nombre de la solicitante. |
| - Hedabideen auditoria-ziurtagiria (OJD, PGD, OJDinteractiva) —non egiaztatzen den inprimaturiko eta banaturiko aleen kopurua— eta | - Certificado de auditoría de medios (OJD, PGD, OJDinteractiva) que acredite el número de ejemplares impresos y distribuidos, así como |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: V62A-JWF2-IDQP-G6M8
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| inprimatze- eta banaketa-gastuen egiaztagiriak (fakturak eta ordainketa-frogagiriak), betiere 2024ko ekitaldiari dagozkionak. Agiri horiek aurkeztuko dira baldin eta ekitaldi horretako dirulaguntzen justifikazioan aurkeztu ez badira. Halako ziurtagiririk izan ezean, inprimaturiko eta banaturiko aleen kopurua ere zehaztu beharko da egiaztagiriotan. | documentos probatorios de los gastos de impresión y de distribución (facturas y justificantes de pago), todo ello referido a 2024, y siempre que no se hubiera aportado en la justificación de subvenciones correspondientes a tal ejercicio. En caso de carecer de dicho certificado, dichos documentos probatorios habrán de especificar el número de ejemplares impresos y distribuidos. |
| - Eskatzaileak —egoitza elektronikoaren bidez egindako eskaerari aipamen espresua eginda— postaz bidali beharko dizkio Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara Zerbitzuko Hizkuntza Gizarteratzeko Atalari (Recalde zumarkalea 30, 5. solairua, 48009 Bilbo), eskabidea egin den egunera arte 2025eko ekitaldian argitaratutako ale guztiak, baldin eta aleok ez badizkio bidali 2025ean zehar. Aleak postaz bidaliko zaizkio Euskara Zerbitzuko Hizkuntza Gizarteratzeko Atalari hedabideak aleak argitaratzen dituen maiztasun berean. | - La solicitante, haciendo expresa mención a la solicitud formulada a través de la sede electrónica, y de no haber procedido en tal sentido a lo largo de 2025, deberá remitir por correo postal, al Servicio de Euskera (Sección de Socialización de la Lengua) de la Diputación Foral de Bizkaia (Alameda de Recalde 30, 5º, 48009 Bilbao), la totalidad de ejemplares publicados en el ejercicio 2025 hasta la fecha de formulación de la solicitud. Los ejemplares correspondientes habrán de remitirse por correo postal al Servicio de Euskera (Sección de Socialización de la Lengua) con la misma periodicidad atribuible al medio. |
| 2) Proiektu komunikatiboaren jarduera nagusia digitala bada: | 2.º Si la actividad principal del proyecto comunicativo es digital: |
| - Proiektu komunikatiboa osatzen duen goiburuaren bertsio digitalean argitaratutako edukien (albiste idatzien eta ikus-entzunezkoen) zerrenda (eduki bakoitzaren argitalpen-data eta guzti), 2025 ekitaldiari dagokiona, diruz laguntzeko proiektu izateko ezaugarriak betetzen dituen egiaztatzeko; proiektua goiburu batek baino gehiagok osatuz gero, edukiak goiburuka banatuta agertu beharko dira zerrendan. | - Listado, correspondiente al ejercicio 2025, de los contenidos (noticias escritas y audiovisuales) publicados (y fecha de publicación) en la versión digital de la cabecera o cabeceras que conforman el proyecto comunicativo (separados por cabecera, si el proyecto lo conformaran varias), con el objeto de verificar sus características como proyecto subvencionable. |
| - Bisitak eta bisitariak neurtzeko kontagailurako sarbidea. | - Acceso al contador de visitas y visitantes. |
| - Domeinua erregistratu izanaren ziurtagiria. Domeinuak eskatzaileak bere izenean erregistratuta egon behar du. | - Certificado de registro del dominio. La titularidad del registro de dominio debe figurar a nombre de la solicitante. |
| 3) Proiektu komunikatiboaren jarduera nagusia ikus-entzunezkoa bada: | 3.º Si la actividad principal del proyecto comunicativo es audiovisual: |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: V62A-JWF2-IDQP-G6M8
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| - Telebista-zerbitzua emateko lizentzia.<br><br>- Asteko zuzeneko programazioa (norberarena edo erosia den bereizita).<br><br>- 2025eko urtarrilaren 1etik eskabidea egin den egunera arte Interneten argitaratutako edukien zerrenda, dataren arabera sailkatuta.<br><br>g) Interesdunak legezko edo borondatezko ordezkari baten bitartez jardunez gero, ordezkaritza egiaztatu beharko da, zuzenbidean onartutako edozein frogabide erabilita. | - Licencia para la emisión del servicio de televisión.<br><br>- Programación semanal en directo (diferenciando si es propia o comprada).<br><br>- Relación de contenidos publicados en Internet desde el 1 de enero de 2025 hasta la fecha de solicitud, clasificados por fecha.<br><br>g) Cuando la persona interesada actúe por medio de representante, legal o voluntario, deberá acreditarse la representación por cualquier medio válido en Derecho. |
| 3. Erakundean legezko gaitasuna duen pertsonak sinatu behar du eskabidea. Eskatzaileak, egoitzan eskuragarri dagoen ereduari jarraituz, honako hauek adierazi beharko ditu: | 3. La solicitud irá firmada por aquella persona con capacidad legal de la entidad. La solicitante deberá cumplimentar, según modelo disponible en Sede, lo siguiente: |
| a) Ea argitalpenaren aleak bidali dizkion Euskara Zerbitzuko Hizkuntza Gizarteratzeko Atalari edo Bizkaiko Foru Aldundiaren beste atal edo zerbitzu bati bidali dizkion (azken kasu horretan, adierazi behar da zeini). | a) Si ha procedido a remitir al Servicio de Euskera (Sección de Socialización de la Lengua) ejemplares de la publicación, o si se ha procedido a su remisión a alguna Sección o Servicio distinto de la Diputación Foral de Bizkaia, en cuyo caso habrá de especificarse a cuál. |
| b) Publizitatearen ehunekoa, eduki osoarekin alderatuta. | b) Porcentaje de contenido publicitario con respecto al contenido total. |
| c) Proiektuari eskainiko zaion dedikazioa, aurrez ikusitakoa: proiektua aurrera eramaten ziur aski parte hartuko duten pertsonen kopurua eta bakoitzak izango duen ordu-dedikazioa, estimazioetan oinarritutakoa. | c) Dedicación prevista al proyecto: número de personas que previsiblemente participarán en la ejecución del proyecto y su dedicación horaria estimada. |
| d) Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 2. artikulua aintzat harturik, ea zein diren erakundeak urtean aurreikusten dituen diru-sarrera guztiak. | d) En cumplimiento del artículo 2 la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, deberán indicarse los ingresos totales anuales previstos por la entidad. |
| Halaber, adierazi beharko du, hala badagokio, ea betetzen dituen aplikagarri zaizkion publizitate aktiboari buruzko betebeharrak. | Asimismo, deberá indicarse si la solicitante cumple con los requisitos de publicidad activa que, en su caso, le fueran aplicables. |
| e) Ea behartuta dagoen BEZaren aitorpena egitera | e) Si está obligada a realizar la declaración de IVA. |
| f) Ea garatu nahi duen proiektuaren jabetza intelektualari lotutako elementuen ustiapen-eskubideen titularra den. | f) Si es titular de los derechos de explotación de los elementos ligados a la propiedad intelectual del proyecto que quiere desarrollar. |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: V62A-JWF2-IDQP-G6M8
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| 7. oinarria. *Dokumentazio egiaztagarria.*<br><br>Dauden datu-bitartekaritzarako sistemen bidez, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoa erabilita, Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko Euskara Zerbitzuak beharrezko datuen egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu, dekretu honen izapidetze administratiborako beharrezkoak direnean, interesdunak modu espresuan kontra dagoela adierazten ez badu. Kontra egonez gero, arrazoiak adierazteaz gainera, behar diren datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko dira.<br><br>Datu horiek honako hauek dira:<br><br>a) Banku-kontuaren titulartasunari buruzko datuak.<br><br>Eskatzaileak uko egiten badio administrazio honek bere bitartekoak erabiliz bankuko datuak egiaztatzeari, banku-helbideratzearen fitxa aurkeztu beharko du, behar bezala beteta.<br><br>b) Zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.<br><br>c) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria. | Base 7. *Documentación verificable.*<br><br>El Servicio de Euskera del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte mediante los sistemas de Intermediación de datos disponibles, a través del Nodo de interoperabilidad de Bizkaia, realizará las comprobaciones y consultas pertinentes de los datos necesarios para la tramitación administrativa del presente decreto que obren en poder de las Administraciones Públicas, salvo oposición expresa de las interesadas, en cuyo caso, además de indicar los motivos de su oposición, deberán aportarse los datos o documentos correspondientes.<br><br>Los datos referidos son:<br><br>a) Los datos de titularidad de la cuenta bancaria.<br><br>En caso de que la solicitante se oponga a que esta Administración compruebe dichos datos bancarios por sus propios medios, deberá aportarse ficha de domiciliación bancaria debidamente cumplimentada.<br><br>b) Certificado de estar al corriente de las obligaciones tributarias.<br><br>c) Certificado de estar al corriente de las obligaciones con Seguridad Social. |
| Arrazoi teknikoak direla eta, ezinezkoa bada elkarreragingarritasunera jotzea, Euskara Zerbitzuak izapideak egiteko beharrezkotzat jotzen dituen datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu. | En todo caso, si por causas técnicas la interoperabilidad no fuera posible, el Servicio de Euskera podrá requerir los datos o documentos necesarios para la tramitación. |
| Datu horiek eskuratzeko modua bat etorriko da datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduan eta erregelamendu hori garatzen duen araudian ezarritakoarekin, bai eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan | Cualquier acceso a los datos personales se realizará de conformidad con lo previsto al respecto en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y su normativa de desarrollo, así como en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: V62A-JWF2-IDQP-G6M8
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| ezarritakoarekin. | Garantía de los Derechos Digitales. |
| | |
| 8. oinarria. *Eskabideak zuzentzea edo hobetzea.* | Base 8. *Subsanación o mejora de las solicitudes.* |
| Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo eskabidearekin batera foru-dekretu honetan eskatutako agirietakoren bat aurkeztu ez bada, errekerimendua egingo zaio interesdunari, hamar (10) eguneko epearen barruan akatsa zuzendu edo beharrezko agiriak aurkez ditzan, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskaera artxibatu egingo dela. | 1. Si las solicitudes no se formalizaran completamente o faltara alguno de los documentos exigidos por el presente decreto foral, se requerirá a la interesada, para que en el plazo de diez (10) días subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se la tendrá por desistida de su petición, archivándose la misma, previa la correspondiente resolución. |
| 2. Edonola ere, Euskara Zerbitzuak beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du, aurkezten zaizkion eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko. | 2. En todo caso, el Servicio de Euskera podrá solicitar cuanta información complementaria considere necesaria para la adecuada comprensión y evaluación de las solicitudes presentadas. |
| | |
| 9. oinarria. *Dirulaguntzak emateko araubidea.* | Base 9. *Régimen de concesión.* |
| Dirulaguntzak norgehiagoka-sistemaren bidez emango dira, hau da, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da eta aurkeztutako eskabideak erkatuko ditu, haien artean lehentasun-hurrenkera bat ezartzeko, 10. oinarrian dirulaguntzak emateko ezarritako irizpideak kontuan hartuta. | La concesión de las presentes subvenciones se realizará mediante un sistema de concurrencia competitiva, esto es, mediante la constitución de un tribunal calificador que procederá a la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas, atendiendo a los criterios de concesión fijados en la base 10. |
| Proposatuko da dirulaguntzak ematea 30 puntu edo gehiago lortu dituzten proiektuei. Puntu horiei gutxieneko dirulaguntza-ehunekoa dagokie, eta ehuneko hori linealki handituko da lortutako puntu gehigarri bakoitzeko. Nolanahi ere, dirulaguntzaren muga izango da dagokion aurrekontu-partidan kontsignatutako zenbatekoa, eta proiektu komunikatibo bakoitzerako eskatutako zenbatekoa. | Se propondrá la adjudicación de las subvenciones a aquellos proyectos que hayan obtenido una puntuación igual o superior a 30 puntos, puntuación a la cual corresponderá un porcentaje de subvención mínimo, que se incrementará linealmente por cada punto adicional obtenido. En cualquier caso, operará como límite la cuantía consignada en la correspondiente partida presupuestaria, y la cantidad solicitada para cada proyecto comunicativo. |
| Aurkeztutako proiektuei *a priori* eman beharreko dirulaguntzek erabilgarri dagoen partida gainditzen badute, orduan, dirulaguntzaren zenbatekoa (eta, horrenbestez, azkenean lortutako dirulaguntzaren ehunekoa) | En caso de que la subvención atribuible a priori a los proyectos presentados excediera del importe de la partida disponible, dicho importe de subvención (y, consecuentemente, el porcentaje de subvención finalmente obtenido) se minorará |



Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: V62A-JWF2-IDQP-G6M8
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| proportzionalki murriztuko da partida horretara egokitu arte. Aitzitik, aurkeztutako proiektuei *a priori* eman beharreko dirulaguntzen zenbatekoa txikiagoa bada partida erabilgarria baino, orduan, dirulaguntzen zenbatekoa proportzionalki gehitu ahal izango da partida horretara egokitu arte, mugatzat hartuta proiekturako eskatutako zenbatekoa eta deialdian eskatzen den gutxieneko autofinantzaketa-maila. | proporcionalmente hasta adecuarse a la citada partida. En sentido contrario, si la subvención atribuible a priori a los proyectos presentados fuera inferior al importe de la partida disponible, dicho importe de subvención podrá aumentarse proporcionalmente hasta adecuarse a la misma partida, tomando como límite la cantidad solicitada para el proyecto correspondiente y el nivel de financiación propia mínimo exigido en la convocatoria. |
| | |
| 10. oinarria. *Dirulaguntzak emateko irizpideak.* | Base 10. *Criterios de concesión.* |
| Proiektu komunikatibo bakoitzari gehienez eman dakiokeen puntuazioa kalkulatzeko, dirulaguntzak emateko irizpide hauek aplikatuko dira, zeinak Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2025eko uztailaren 1eko Aginduaren bidez (2025eko uztailaren 7ko EHAA, 127. zk.) Eusko Jaurlaritzak argitaratutako *Hedabideak* deialdiaren arabera idatzita baitaude: | La puntuación máxima atribuible a cada proyecto comunicativo se calculará mediante la aplicación de los siguientes criterios de concesión, redactados de conformidad con la convocatoria *Hedabideak* publicada por el Gobierno Vasco mediante Orden de 1 de julio de 2025, de la vicepresidenta 1ª del Gobierno y consejera de Cultura y Política Lingüística (BOPV nº 127, de 7 de julio de 2025): |
| 1. Irizpide deskriptiboa (15 puntu):<br><br>a) Proiektu komunikatiboaren deskribapena, edizioaren diseinua eta kalitatea baloratuko da modu orokorrean. Euskarri guztietan egingo da balorazioa. Edukiak euskarri ezberdinetan zabaltzeko egokitasuna eta ikus-entzunezko edukiak (audioa + testua + argazkia) maiztasun batekin sortzen dituen.<br><br>b) Lantaldea, organigrama: Lantaldea osatzen duten langileak eta haietako bakoitzaren zereginak eta dedikazioak zehaztuko dira. Argitalpenak lehengo orrietan jasoko du zein den lantalde osoa. Eduki bakoitza (idatzizkoa, edo ikus-entzunezkoa) kazetariaren izen-abizenarekin identifikatuko da. Beste hedabide baten edukia bada, hedabide horren izenarekin identifikatu beharko da. | 1. Criterio descriptivo (15 puntos):<br><br>a) Se valorará de forma global la descripción del proyecto comunicativo, el diseño y la calidad de la edición. La valoración se realizará en todos los soportes. La idoneidad de difundir contenidos en diferentes soportes y la frecuencia con la que crea contenidos audiovisuales (audio + texto + foto).<br><br>b) Equipo de trabajo, organigrama: se detallarán el personal que lo compone y las tareas y dedicaciones de cada uno de ellos. La publicación recogerá en sus primeras páginas la totalidad de su equipo de trabajo. Cada contenido (escrito o audiovisual) se identificará con el nombre y apellidos del periodista. Si se trata de contenido de otro medio, deberá identificarse con el nombre de dicho medio. |
| 2. Egitasmoaren kalitatea (60 puntu):<br><br>a) Audientzia: proiektuak zer audientziari begira lan egiten duen azalduko du bai eta audientzia | 2. Calidad del proyecto (60 puntos):<br><br>a) Audiencia: se explicará la audiencia para la cual trabaja el proyecto y el sistema de análisis de |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: V62A-JWF2-IDQP-G6M8
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| aztertzeko erabiltzen duen sistema ere. Audientzia berrietara iristeko plana du eta produktuak audientziekin nola lotzen dituen azalduko du. Planaren balorazioa. Audientzia eta edukiaren arteko lotura baloratuko da. | audiencia que utiliza. Se detallará el plan de acceso a nuevas audiencias, explicando cómo relaciona los productos con las audiencias. Valoración del Plan. Se valorará la relación entre la audiencia y el contenido. |
| b) Trafiko-datuen azterketa: datuak aztertzeko zer panel sistema erabiltzen duen azalduko du. Datuen etengabeko analisia egiten duen baloratuko da. | b) Análisis de los datos de tráfico: se explicará qué panel utiliza para analizar los datos. Se valorará si realiza un análisis continuo de los datos. |
| c) Presentzia digitala: proiektu komunikatiboaren jardun digitala baloratuko da eta edukiak digitalki hedatzeko duen estrategia. Komunikabideak bide digitala lehenesteko zer estrategia duen eta lan-fluxua horretara egokitzeko egiten duen lana baloratuko da. | c) Presencia digital: se valorará el desempeño digital del proyecto comunicativo y su estrategia para la difusión digital de los contenidos. Se valorará la estrategia del medio de comunicación para priorizar la vía digital y su trabajo para adecuar el flujo de trabajo a dicha vía. |
| d) Kultura eta euskara: proiektu komunikatiboak euskal kulturarekin edo euskararekin duen konpromisoa baloratuko da. | d) Cultura y euskera: se valorará el compromiso del proyecto comunicativo con la cultura vasca o el euskera. |
| e) Zabalkundea: proiektu komunikatiboak sortzen dituen edukiak hedatuak izan daitezen duen estrategia baloratuko da. | e) Difusión: se valorará la estrategia para la difusión de los contenidos que genere el proyecto comunicativo. |
| f) Informazioaren egiazkotasuna: hedatzen dituen informazioak benetakoak direla bermatzeko erabiltzen duen estrategia baloratuko da. Egiazko albisteak edo testuingurutik ateratakoak diren jakiteko eta edukia kontrastatzeko prozedura daukan baloratuko da. | f) Veracidad de la información: se valorará la estrategia que utiliza para garantizar la veracidad de las informaciones que difunde. Se valorará si tiene un procedimiento para distinguir si son noticias reales o sacadas de contexto y contrastar su contenido. |
| g) Inpaktu soziala: proiektu komunikatiboak bere jardunak duen inpaktu soziala nolakoa den azalduko du eta neurtzeko zer sistema erabiltzen duen ere azalduko du. (hedabideak aukeratuko du edukia eta horren gainean azterketa aurkeztuko du). Neurketa-sistema baloratuko da. | g) Impacto social: el proyecto comunicativo explicará el impacto social de su actuación y el sistema de medición que utiliza (el medio de comunicación elegirá el contenido y presentará un análisis del mismo según su sistema). Se valorará el sistema de medición. |
| h) Kode etikoa: proiektu komunikatiboak erabiltzen duen bere kode deontologikoa eta horri ematen dion erabilera baloratuko da. | h) Código ético: se valorará el código deontológico del proyecto comunicativo y su uso. |
| i) Marka-kudeaketa: proiektuaren marka-kudeaketarako estrategia baloratuko da. | i) Gestión de marca: se valorará su estrategia de gestión de marca. |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: V62A-JWF2-IDQP-G6M8
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| j) Segmentazioa: xede-talde jakin edo berezi bati zuzendutako eduki edo produktu berezituak ditu, eta horrek hobeki segmentatzea ahalbidetzen dio. Ekoizpen esklusiboak ditu harpidedunei begirakoak (adibidez: datu-horma / muro de datos). Horren gaineko estrategia baloratuko da.<br><br>k) Berrikuntza: proiektu komunikatiboak berrikuntza bitartezko etengabeko egokitzapena, era planifikatuan azken produktuari begira egiten duen baloratuko da. Batzuetan bakarka garatuko ditu berrikuntza-proiektuak eta beste batzuetan, ordea, enpresa espezializatuekin edo komunikabideekin batera. Proiektu horien azalpena baloratuko da.<br><br>l) Publiko potentziala: proiektu komunikatiboak publiko potentzial txikia du (definitu). Definizioa baloratuko da.<br><br>m) Berdintasuna: egitasmo osoan eta edukiak sortzeko garaian genero ikuspegia txertatzeko plana baloratuko da.<br><br>n) Teknologia berriak: teknologia berrien aplikazioa lan-fluxuaren atalen batean: itzultzaile automatikoa, harpidetzen kudeaketarako sistemak, maketazio-sistema aurreratuak, kudeaketa aurreratua... Teknologia berrien aplikazioa baloratuko da.<br><br>o) Menbresia: proiektu komunikatiboak menbresia lantzeko aktibitate-plana baloratuko da.<br><br>p) Ingurumena: proiektu osoan eta edukiak sortzeko garaian ingurumen-ikuspegia txertatzen duen baloratuko da. | j) Segmentación: contiene contenidos o productos diferenciados dirigidos a un grupo objetivo concreto o específico que le permite una mejor segmentación. Tiene proyectos exclusivos para sus suscriptores (ejemplo: muro de datos). Se valorará la estrategia al respecto.<br><br>k) Innovación: adecuación continua del proyecto comunicativo a través de la innovación, valorando si lo hace de forma planificada hacia el producto final. En ocasiones se desarrollarán proyectos de innovación de forma individual y en otras junto con empresas especializadas o medios de comunicación. Se valorará la explicación de dichos proyectos.<br><br>l) Público potencial: el proyecto comunicativo tiene un público potencial bajo (definir). Se valorará la definición.<br><br>m) Igualdad: se valorará el plan para la integración de la perspectiva de género en todo el proyecto y en la elaboración de contenidos.<br><br>n) Nuevas tecnologías: aplicación de las nuevas tecnologías en algún apartado del flujo de trabajo: traductor automático, sistemas de gestión de suscripciones, sistemas avanzados de maquetación, gestión avanzada... Se valorará la aplicación de las nuevas tecnologías.<br><br>o) Suscripción: se valorará el plan de actividades para potenciar la suscripción en los proyectos comunicativos.<br><br>p) Medio Ambiente: se valorará la integración de la perspectiva ambiental en el conjunto del proyecto y en la generación de contenidos. |
| 3. Ezaugarri ekonomikoak (25 puntu):<br><br>a) Aurrekontu koherentea izatea baloratuko da: aurrekontuaren eta aktibitate-planean jasotako proposamenaren arteko koherentzia ekonomikoa egon behar da. Aktibitate-planak organigrama bat du: kudeaketa orokorra, kazetaritza, diseinu eta zuzenketa, ikus-entzunezko teknikariak, eta baliabide materialak. | 3. Características económicas (25 puntos):<br><br>a) Se valorará la coherencia presupuestaria, existiendo una correlación económica entre el presupuesto y la propuesta contenida en el plan de actividades. El plan de actividades consta del siguiente organigrama: gestión general, periodismo, diseño y corrección, técnicos audiovisuales, y recursos materiales. |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: V62A-JWF2-IDQP-G6M8
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| b) Aurrekontu orekatua izatea baloratuko da: diru-sarrera propioak (autofinantzaketa kopuru absolutuak).<br><br>c) Marketing-plana baloratuko da. Helburu zehatzak eta horiek lortzeko planifikazioa hedabidearen zabalkundeari begira. | b) Se valorará la existencia de un presupuesto equilibrado: ingresos propios (cifras absolutas de autofinanciación).<br><br>c) Se valorará el plan de marketing. Objetivos concretos y planificación para alcanzarlos de cara a la difusión del medio. |
| 4. Proiektu bakoitzari dagozkion puntuak artikulu honetan zehaztutako balorazio-irizpideen eta haietako bakoitzaren zehaztapenaren arabera finkatuko dira. Puntu horiek onartutako gastu-aurrekontuaren estalpen-indizea zehaztuko dute. | 4. La puntuación correspondiente a cada proyecto se determinará en función de los criterios de valoración establecidos en el presente artículo y de la concreción de cada uno de ellos. Estos puntos determinarán el índice de cobertura del presupuesto de gastos aprobado. |
| 5. Proiektu komunikatibo bakoitzari (pertsona edo entitate bat, proiektu bat) emandako dirulaguntzaren ehunekoa lortutako puntuazioaren araberakoa izango da.<br><br>Foru-dekretu honen babespean, dirulaguntza lortu ahal izateko gutxieneko puntuazioa 30 puntu da, eta gutxieneko dirulaguntza, 2.000 euro. Puntuazioak edo dirulaguntza teorikoak txikiagoak izanez gero, proiektua baztertu egingo da dirulaguntzaren ondorioetarako, eta legokiokeen zenbatekoa gainerakoen onurarako izan liteke.<br><br>30 puntu horiei esleituko zaien dirulaguntzaren ehunekoa proiektuaren aurrekontu araztuaren % 35 izango da. % 35eko ehuneko hori linealki igoko da (+ % 0,2) proiektuak lortutako puntu gehigarri bakoitzeko, gehienez ere 100 punturaino (lehen zehaztutako irizpideen arabera). Irizpide horren arabera, puntuazio horri gehienez egokituko litzaiokeen dirulaguntzaren ehunekoa % 49 da.<br><br>Dirulaguntzaren zenbatekoa, aipatutako ehunekoak aplikatuta lortutakoa, % 5 handitu ahal izango da bizkaiera hutsean garatzen diren proiektu komunikatiboetan.<br><br>Dirulaguntzaren ehuneko eta zenbateko horien mugak hauek dira: proiektu komunikatiborako eskatutako zenbatekoa, aurrekontu-partidan | 5. El porcentaje de subvención atribuido a cada proyecto comunicativo (una persona o entidad, un proyecto) vendrá determinado por la puntuación obtenida.<br><br>Bajo el presente decreto foral, la puntuación mínima para poder obtener subvención es de 30 puntos, y la subvención mínima, de 2.000 euros. Puntuaciones inferiores, o subvenciones teóricas inferiores, determinarán que el proyecto se descarte a efectos de subvención, y el importe que le correspondiera pudiera redundar en beneficio del resto.<br><br>A esos 30 puntos se atribuirá un porcentaje de subvención del 35 % del presupuesto depurado del proyecto. Este porcentaje del 35 % se incrementará linealmente (+0,2%) por cada punto adicional obtenido por el proyecto, hasta la puntuación máxima de 100 puntos (conforme a los criterios anteriormente especificados), puntuación a la que, de conformidad con este criterio, correspondería un porcentaje de subvención máximo del 49 %.<br><br>El importe de subvención correspondiente, obtenido en aplicación de los porcentajes referidos, podrá incrementarse en un 5 % en los proyectos coomunicativos que se desarrollan íntegramente en vizcaíno.<br><br>Estos porcentajes e importes de subvención tienen como límite, en todo caso, la cantidad |



Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: V62A-JWF2-IDQP-G6M8
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| kontsignatutako zenbatekoa eta deialdian eskatzen den autofinantzaketa-maila. Aurreko puntuetan esandako moduan kalkulatu diren dirulaguntzen baturak diru-baliabideen muga gainditzen badu, kasuan kasu esleitu beharreko dirulaguntzen ehunekoak proportzionalki murriztuko dira erabilgarri dagoen partidara egokitzeko. Era berean, batura hori txikiagoa bada muga baino, dirulaguntza handitu egin liteke, aipatutako partidara erabat egokitu arte. | solicitada para el proyecto comunicativo, el importe fijado como partida presupuestaria, y el nivel de financiación propia exigido en la convocatoria. Si la suma de las subvenciones calculadas con arreglo a lo señalado en los puntos anteriores excediera el límite de recursos económicos, los porcentajes de subvención que se asignaran en cada caso se minorarían proporcionalmente para adecuarse a la partida disponible. De igual forma, de resultar inferior al citado límite, la subvención podría incrementarse hasta adecuarse completamente a la citada partida. |
| | |
| 11. oinarria. *Aholkularitza.* | Base 11. *Asesoramiento.* |
| Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Euskara Zerbitzuak behar den laguntza teknikoa edo aholkularitza eskainiko ditu foru-dekretu hau dela-eta sortutako zalantza edo kontsulta guztiak argitzeko; horretarako, aldundiaren webguneko inprimaki hau erabili ahal izango da:<br><br>www.bizkaia.eus/laguntzaileEuskara | El Servicio de Euskera del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte prestará el apoyo técnico o asesoría necesaria ante cualquier duda o consulta referida al presente decreto foral, a cuyos efectos está disponible un acceso a través de la siguiente web foral:<br><br>www.bizkaia.eus/laguntzaileEuskara |
| | |
| 12. oinarria. *Epaimahai kalifikatzailea.* | Base 12. *Tribunal calificador.* |
| 1. Epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko. Epaimahaikideak Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru-diputatuak izendatuko ditu, foru-agindu bidez. Izendapen horiek egiteko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 44. artikuluan ezarritakoa beteko da. | 1. Para el análisis y la evaluación de las solicitudes presentadas, se constituirá un tribunal calificador cuyas personas integrantes serán designadas por la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia, mediante orden foral. A tal efecto, se cumplirá lo establecido en el artículo 44 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad entre Mujeres y Hombres. |
| Epaimahai hori osatzen duten pertsonek behar besteko gaitasun teknikoa, administratiboa, funtzionala eta zuzendaritzakoa izango dute eskabideetan eskatzen diren betekizunak behar bezala baloratzeko eta deialdi honen xede diren proiektuak baloratzeko. | Las personas integrantes del mismo contarán con la capacidad técnica, administrativa, funcional y directiva suficiente para la adecuada apreciación de los requisitos exigidos en las solicitudes y valoración de los proyectos objeto de la presente convocatoria. |
| Epaimahai kalifikatzaileak egokitzat jotzen duenean, aholkularien laguntza eskatu ahal izango du, baita proiektuaren edo jardueraren gai zehatz eta espezifikoetan edo zeharkako gaietan | Cuando el tribunal calificador lo estime conveniente, podrá recabar la colaboración de personas asesoras, así como de personas expertas en materias concretas y específicas del |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: V62A-JWF2-IDQP-G6M8
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| (adibidez, genero-ikuspegian) adituak diren pertsonena ere. | proyecto o actividad, o en materias de carácter transversal como la perspectiva de género. |
| | |
| 13. oinarria. *Ebazpena.* | Base 13. *Resolución.* |
| 1. Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 22.4. artikuluan xedatutakoa betez, deialdi honetan, ez da aurreikusten lehenbizi behin-behineko ebazpen-proposamena egin, eta, gero, interesdunei entzunaldiaren izapidea eskainiko zaienik, prozeduran interesdunek ekarri dituzten egitateak, alegazioak eta frogak besterik ez baitira jasoko eta kontuan hartuko. | 1. No se prevé en esta convocatoria, a efectos de lo dispuesto por el artículo 22.4 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, la resolución, en primer lugar, a través de una propuesta de resolución provisional tras la que se conceda trámite de audiencia a las personas interesadas, puesto que no figurarán en el procedimiento ni serán tenidos en cuenta otros hechos u otras alegaciones y pruebas que las aducidas por las personas interesadas. |
| 2. Deialdia ebatzi aurretik, Euskara Zerbitzuak egiaztatuko du ea eskatzaileek egunean dituzten tributu-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak. Halaber, egiaztatuko du ez direla zordun dirulaguntza itzuli behar dutela-eta. | 2. Previo a la resolución de la convocatoria, el Servicio de Euskera comprobará que las solicitantes se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y para con la Seguridad Social, y que no son deudoras por reintegro de subvención. |
| Egiaztapena egin ondoren ikusten bada eskatzaileren batek betebehar horietako edozein ez duela betetzen, errekerimendua egingo zaio 10 eguneko epean bere egoera erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, dagokion ebazpena eman ondoren. | Si como consecuencia de tal comprobación resultare que alguna solicitante incumple cualquiera de tales obligaciones, será requerida para que en el plazo de 10 días regularice su situación con advertencia de que, en otro caso, su solicitud será dada por desistida, previa la correspondiente resolución. |
| 3. Eskabideei buruzko ebazpena emateko eta jakinarazteko epea sei (6) hilabetekoa izango da gehienez, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuta. Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru-diputatuak emango du ebazpena, epaimahai kalifikatzailearen proposamena kontuan hartuta. | 3. El plazo máximo para resolver y notificar la resolución de las solicitudes será de seis (6) meses, a contar desde la finalización del plazo de entrega de solicitudes. La resolución será dictada por la diputada foral del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte, a propuesta de la resolución del tribunal calificador. |
| Epe hori eskabideari buruzko ebazpen espresurik eman eta jakinarazi gabe igarotzen bada, eskabidea ezetsitzat joko da; hala ere, geroago ebazpen espresua eman ahal izango da. | Si transcurrido dicho plazo no mediara resolución expresa y notificación de la misma, se entenderá que ha sido desestimada, sin perjuicio de que con posterioridad sea resuelta de forma expresa. |
| 4. Deialdi hau ebazteko ematen den foru-agindua pertsona eta entitate interesdunei jakinaraziko zaie; horretarako, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean | 4. La orden foral por la que se resuelva la presente convocatoria será notificada a las personas y entidades interesadas mediante |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: V62A-JWF2-IDQP-G6M8
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| argitaratuko da. Egoitza elektronikoan agertzearen bitartez ere komunikatuko da. | publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia. También se comunicará mediante comparecencia en la sede electrónica. |
| Foru-agindu horretan berariaz jasoko da ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela eta interesdunak aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar dezakeela foru-agindu horren aurka, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru-diputatuaren aurrean, hilabeteko (1) epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, bi (2) hilabeteko epearen barruan; epeok jakinarazpena egin eta biharamunean hasiko dira zenbatzen. | Contendrá expresa mención a que la misma agota la vía administrativa, y podrá ser recurrida por la persona interesada, interponiendo contra ella, con carácter potestativo, recurso de reposición ante la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia, en el plazo de un (1) mes a partir del día siguiente al de su notificación o recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos (2) meses, contados de igual forma. |
| | |
| 14. oinarria. *Bateragarritasuna beste dirulaguntza batzuekin.* | Base 14. *Compatibilidad con otras subvenciones.* |
| 1. Foru-dekretu honen babesean emandako diru-laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administraziok edo erakunde publikok zein pribatuk ematen dituzten diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin. | 1. Las subvenciones del presente decreto foral serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales. |
| Ez dira bateragarri izango, ordea, ez Bizkaiko Foru Aldundiak berak helburu bererako emandako laguntza, diru-sarrera eta baliabideekin, ez euskara hutsezko hedabideen ekintzabidea ziurtatzeko 2022ko apirilaren 11ko hitzarmena sinatu duten gainerako administrazioek —Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak— emandako dirulaguntzekin, ezta xede bera edo antzekoa lortze aldera aipatutako hitzarmen horri jarraipena emango dion edo hura ordezkatuko duen hitzarmena sinatzen duten gainerako administrazioek emandakoekin. | No obstante, no serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad concedidas por la propia Diputación Foral de Bizkaia, ni con las subvenciones otorgadas por el resto de Administraciones suscriptoras del Convenio firmado entre el Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Álava, la Diputación Foral de Gipuzkoa y la propia Diputación Foral de Bizkaia, de fecha 11 de abril de 2022, para asegurar la línea de acción futura en favor de los medios de comunicación íntegramente en euskera, ni con aquellas subvenciones otorgadas por el resto de Administraciones suscriptoras del convenio que dé continuidad o sustituya al convenio anteriormente citado, para el mismo o similar objeto. |
| Dirulaguntza bateragarria da beste edozein erakunde publiko edo pribatuk helburu bererako eman ditzakeen beste batzuekin, baldin eta gainfinantzaketarik gertatzen ez bada, foru- | La subvención es compatible con aquellas otras que, teniendo el mismo fin, pudieran ser otorgadas por cualquier otra institución pública o privada, siempre que de ello no se derive |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: V62A-JWF2-IDQP-G6M8
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| dekretu honetan zehaztutako mugak kontuan hartuta. | sobrefinanciación, considerando los límites especificados en el presente decreto foral. |
| 2. Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren inguruabarretakoren bat aldatzen bada, eta betiere aldi berean udalerrietako, autonomia-erkidegoetako, estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko batek emandako beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideren bat lortzen bada, gerta liteke dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea, zeren foru-dekretu honen bitartez araututako dirulaguntzen zenbatekoa, bakarrik zein beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin bat eginda (eskatzen den finantzaketa propioa barne), inolaz ere ezin baita izan onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino handiagoa. | 2. Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, y en todo caso la obtención concurrente de subvenciones, ayudas, ingresos o recursos otorgados por otras administraciones o entes públicos, municipales, autonómicos, estatales o internacionales, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión, dado que el importe de las subvenciones reguladas en el presente decreto foral, en ningún caso, podrá ser de tal cuantía que aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones o ayudas, incluida la financiación propia exigida, supere el coste de la actividad que desarrolle la entidad beneficiaria. |
| 3. Europako Batzordeak aztertu du foru-dekretu honen bidez diruz laguntzen den arloa, eta, 2016ko abuztuaren 4ko C (2016) 4971 Azken Erabakiaren bidez ebatzi zuen dirulaguntza hauek ez direla estatu-laguntzak; izan ere, ez dute eraginik Europar Batasunaren barruko merkatuan, toki-merkatu baterako baitira. Beraz, laguntza hauek salbuetsita daude Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 108.3 artikuluan jasotako jakinarazpen-prozeduratik. | 3. La materia objeto de las presentes ayudas ha sido objeto de análisis de la Comisión Europea, que determinó con fecha de 4 de agosto de 2016, mediante la Decisión C (2016) 4971 final, que éstas no tienen la consideración de ayuda de estado por no afectar al comercio intracomunitario, al tratarse de productos que se destinan a un mercado local. En consecuencia, estas ayudas quedan excluidas del procedimiento de notificación previsto en el artículo 108.3 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea. |
| | |
| IV. TITULUA | TITULO IV |
| **Dirulaguntzen kudeaketa eta justifikazioa** | **Gestión y justificación de las subvenciones** |
| 15. oinarria. *Dirulaguntzaren ordainketa.* | Base 15. *Pago de la subvención.* |
| 1. Deialdi hau ebazten duen foru-agindua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamar egun baliodunera onuradunak ez badio berariaz eta idatziz dirulaguntzari uko egiten, ulertuko da onuradunak onartu egin duela, eta Euskara Zerbitzua dirulaguntzaren zenbatekoaren ordainketa izapidetzen hasiko da Ogasun eta Finantzen Foru Sailean; horretarako, onuradunei ez zaie inolako bermerik eskatuko. | 1. Si en el plazo de diez días hábiles tras la fecha de publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia de la orden foral que resuelve la presente convocatoria la persona beneficiaria no renuncia expresamente y por escrito a la subvención, se entenderá que ésta queda aceptada, y el Servicio de Euskera procederá a tramitar su abono ante el Departamento Foral de Hacienda y Finanzas, no exigiéndose para ello garantía alguna a las beneficiarias. |
| Hala ere, onuradunen batek edo batzuek uko | No obstante, si alguna o algunas beneficiarias |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: V62A-JWF2-IDQP-G6M8
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| egiten badiote emandako dirulaguntzari, uko horrek ez du inola ere ekarriko deialdi honen ebazpenean ezarritakoa aldatzea. | renunciasen a la subvención concedida, dicha renuncia no implicará en ningún caso la modificación de los términos de la resolución de la presente convocatoria. |
| 2. Dirulaguntza ordaindu aurretik, egiaztatuko da ea eskatzaileek egunean dituzten tributu-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak. Halaber, egiaztatuko da ez direla zordun dirulaguntza itzuli behar dutela-eta. | 2. Previo al pago de la subvención, se comprobará que las beneficiarias se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social, y que no son deudoras por reintegro de subvención. |
| Egiaztapena egin ondoren ikusten bada onuradunetako batek betebehar horietako edozein ez duela betetzen, errekerimendua egingo zaio hamar (10) eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, emandako dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko duela. | Si como consecuencia de la comprobación efectuada resulta que alguna beneficiaria incumple cualquiera de las obligaciones señaladas, ésta será requerida para que en el plazo de diez (10) días regularice dicha situación con la advertencia de que, en caso contrario, perdería el derecho a la subvención concedida. |
| | |
| 16. oinarria. *Onuradunaren ekimenez egindako itzulketa.* | Base 16. *Devolución a iniciativa de la persona perceptora.* |
| 1. Martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 76. artikuluan ezarritakoaren arabera (dekretu horren bidez, Diru-laguntzen Erregelamendua onesten da, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duena), onuradunak bere ekimenez itzuli ahal izango du Bizkaiko Foru Aldundiak emandako dirulaguntza, foru-erakundearen inolako errekerimendurik gabe. | 1. De conformidad con lo previsto por el artículo 76 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, la beneficiaria podrá proceder a la devolución voluntaria de la subvención concedida por la Diputación Foral de Bizkaia sin el previo requerimiento de esta última. |
| Halakoetan, aipatutako 76. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita, Bizkaiko Foru Aldundiak dirulaguntza benetan itzultzen den arte sortutako berandutze-interesak kalkulatuko ditu, 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluaren arabera. | En este supuesto, la Diputación Foral de Bizkaia calculará los intereses de demora hasta el momento de la devolución efectiva de la subvención, conforme a lo dispuesto en el referido artículo 76, y según lo establecido en el artículo 34 de la Norma Foral 5/2005. |
| 2. Foru-dirulaguntza onuradunak berak eskatuta itzultzeko, ordainketa-gutun bat erabili behar da. Ordainketa-gutun hori Euskara Zerbitzuaren bulegoetan izapidetuko da, onuradunak eskaera aurkeztu eta gero. Ordainketa-gutunean honako hauek adierazi behar dira: itzuli beharreko zenbatekoa (printzipala eta berandutze-interesak), ereduaren kodea eta diru-sarreraren zergatia, itzuli behar den dirulaguntzari erreferentzia eginda. | 2. La devolución de la subvención foral a instancia de la beneficiaria se deberá realizar mediante la correspondiente carta de pago que, a su requerimiento, le será tramitada en las dependencias del Servicio de Euskera. En dicha carta de pago se consignará el importe a devolver (principal e intereses de demora), el código del modelo y el motivo del ingreso, haciéndose además referencia a la subvención a devolver. |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: V62A-JWF2-IDQP-G6M8
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| 3. Foru-dirulaguntzaren onuradunak finantza-erakunde batean dirulaguntzaren ordainketa egin ondoren, diru-sarreraren frogagiria bidali beharko dio Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Euskara Zerbitzuari. Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez aurkeztu beharko da agiri hori. | 3. Una vez practicado el abono por la beneficiaria de la subvención foral en una entidad financiera, habrá de remitirse justificante del respectivo ingreso al Servicio de Euskera del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte, a través de la presentación en la sede electrónica. |
| | |
| 17. oinarria. *Justifikazioa egiteko epea eta era.* | Base 17. *Plazo y forma de justificación.* |
| Foru-dekretu honen bitartez arautako dirulaguntzen erakunde onuradunek honako konpromiso hauek bete beharko dituzte: | Las beneficiarias de las subvenciones reguladas por el presente decreto foral se comprometen a: |
| 1. Jarduera osoa 2025eko ekitaldian egin behar dute. | 1. Realizar la totalidad de la actividad en el ejercicio 2025. |
| 2. Dirulaguntza jasotako dirulaguntzaren zenbatekoaren arabera justifikatuko da. Horrela, zenbatekoa 100.000 euro edo gutxiago bada, Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Erregelamenduaren 57. artikuluarekin bat etorrita, onuradunek Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailean justifikatu behar dute proiektua egin dela, hura emateko oinarrizkoak izan ziren baldintzak bete direla eta diruz lagundutako proiektuaren zenbateko araztuaren gastua jarduerari aplikatu zaiola. Horretarako, zenbait agiri aurkeztu beharko dituzte, egoitza elektronikoaren bidez, eta 2026ko otsailaren 27a izango da horretarako azken eguna (hori barne). Hona agiriok: | 2. La justificación de la subvención se realizará en función del importe de subvención recibida. De esta manera, si este asciende a un importe igual o inferior a los 100.000 euros, conforme al artículo 57 del Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, la beneficiaria deberá justificar ante el Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia la realización del proyecto, el cumplimiento de las condiciones que fundamentaron su concesión y la aplicación del gasto del importe depurado del proyecto subvencionado a través de la presentación en la sede electrónica de la siguiente documentación, fijándose como último día para ello el 27 de febrero de 2026 (incluido): |
| a) Diruz lagundutako proiektu komunikatiboaren nondik norakoei buruzko memoria, bertan honako hauek zehaztuta: jarduerak zenbateraino burutu diren, baita diruz lagundutako proiekturako zer giza baliabide eta baliabide material erabili diren ere. | a) Memoria explicativa del desarrollo del proyecto comunicativo subvencionado, especificándose el grado de ejecución de las actividades realizadas, así como los recursos humanos y materiales destinados al proyecto subvencionado. |
| Halaber, memoria horretan jaso beharko dute genero-ikuspegitik garrantzizkoa den informazioa, garatutako proiektuari dagokiona. | Asimismo, deberán incluir en la memoria la información relevante desde la perspectiva de género relativa al proyecto desarrollado. |
| b) Egindako proiektu komunikatiboaren kostua justifikatzen duen txosten ekonomikoa, honako hauek jasoko dituena: | b) Una memoria económica justificativa del coste del proyecto comunicativo desarrollado, que contendrá: |
| 1) Proiektuari egotzitako diru-sarreren eta | 1.º Estado de ingresos y gastos imputados al |



Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: V62A-JWF2-IDQP-G6M8
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| gastuen egoera-orria, egoitzan dagoen ereduaren araberakoa. | proyecto conforme al modelo disponible en sede. |
| 2) Gastu-partida bakoitzean, dirulaguntza jaso duen proiektu komunikatiboaren gastuen zerrenda sailkatua, egoitzan dagoen ereduaren arabera. | 2.º Para cada una de las partidas de gasto, una relación clasificada de gastos del proyecto comunicativo subvencionado, conforme al modelo disponible en sede. |
| 3) Gastuen jatorrizko frogagiriak. Frogagiriok aurrekontu araztuaren kontzeptuei buruzkoak izango dira. Aurreko horiekin batera frogagiri eta faktura guztien zerrenda ordenatua ere aurkeztu beharko da, zenbatekoa eta aurrekontuaren zein atali dagokien zehaztuta. Gastuen jatorrizko frogagiriak kontzeptuen arabera zenbatu eta sailkatu beharko dira, egoitzan txertatutako zerrendari jarraituz. | 3.º Justificantes de los gastos; dichos justificantes deberán corresponder a conceptos del presupuesto depurado. Se deberá acompañar un listado ordenado de los justificantes y facturas presentadas señalando su importe y la partida del presupuesto a la que corresponde. Esos justificantes de los gastos deberán numerarse y ordenarse por concepto, de conformidad con el listado incluido en sede. |
| Enpresen kasuan, berankortasunari buruz aplikatzekoa den araudian aurreikusitako epeetan egindako ordainketen fakturak eta dokumentuak soilik aurkeztu ahal izango dira. | En el caso de empresas, solo podrán aportarse las facturas y documentos que soporten los pagos realizados en los plazos previstos en la normativa sobre morosidad que resulte de aplicación. |
| 4) Dirulaguntzen, laguntzen, diru-sarreren edo baliabideen zerrenda zehatza, eta, hala badagokio, finantzaketa propioarena ere bai, baldin eta halakoen bidez finantzatu bada diruz lagundutako proiektua; xehetasun hori egoitzan dagoen ereduaren arabera egingo da, partida bakoitzari dagokionez. | 4.º Una relación detallada de las subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, incluida la financiación propia exigida, en su caso, que hayan financiado el proyecto subvencionado, por cada una de las partidas que componen el estado de ingresos, conforme al modelo disponible en sede. |
| 5) Dena dela, diruz laguntzen den gastuak sektore publikoko kontratuen arloko araudi propioan kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak gainditzen dituenean, pertsona onuradunak, gutxienez, hiru hornitzaileren eskaintzak eskatu beharko ditu zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ez bada nahikoa erakunderik halakorik hornitu edo eskaintzen duenik, edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin bada. | 5.º Cuando el importe del gasto subvencionable supere las cuantías establecidas en la normativa propia de los Contratos del Sector Público para el contrato menor, la persona beneficiaria deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la contracción del compromiso para la prestación del servicio o la entrega del bien, salvo que por las especiales características de los gastos subvencionables no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo suministren o presten, o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención. |
| Aurkeztutako eskaintzak justifikazioan jaso beharko dira, eta, haien artean aukeratzeko, efizientzia- eta ekonomia-irizpideak hartuko dira kontuan. Hala, proposamen ekonomikorik onena | La elección entre las ofertas presentadas, que deberán aportarse en la justificación, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: V62A-JWF2-IDQP-G6M8
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| aukeratzen ez denean, beren-beregi justifikatu beharko da inguruabar hori memoria baten bidez. | memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa. |
| c) Proiektua gauzatzeko prestatutako esku-egitarauak, kartelak, argazkiak, argitalpenak, ikus-entzunezko zein informatikako materiala eta bestelako dokumentazio grafikoa; haietan, erraz ikusteko eran agertu behar da jarduera horretarako dirulaguntza eman duela Bizkaiko Foru Aldundiak. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde-elementuak sartuko dira material horietan, foru-dekretu honen 18. oinarriaren e) letran ezarritakoarekin bat etorrita. Laguntza eman dela jakinarazi ondoren egindako jarduerei bakarrik dagokie betebehar hori. | c) Ejemplares de mano, carteles, fotografías, publicaciones, material audiovisual e informático, así como cualquier otra documentación de carácter gráfico elaborada para el desarrollo del proyecto, debiendo constar en lugar visible en los mismos, que la actividad ha sido subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia, a cuyos efectos se insertará en éstos los elementos institucionales de ésta en los términos previstos en la letra e) de la base 18ª del presente decreto foral. Dicha obligación afecta a las actividades realizadas una vez que ha sido notificada la concesión de la subvención. |
| d) Proiektu komunikatiboa zer motatakoa den:<br><br>1) Jarduera nagusia paperean eta digitalki egiten badute:<br><br>- Onuradunak paperean bidali beharko dizkio Euskara Zerbitzuari 2025. urtean banatutako zenbaki eta gehigarri guztiak, salbu eta eskabidearekin batera bidali dituenak, 6.2.f)1 oinarrian zehaztutako moduan.<br><br>- Zehazki, eta 17.2.b) 2) oinarriaren arabera egin ez badu, onuradunak zehaztu egin beharko ditu inprimatze- eta banaketa-gastuak —zenbatekoak, eta inprimaturiko eta banaturiko ale kopurua—; hala, gastu horiek ekarriko dute kontzeptu horiengatik faktura edo gastu-egiaztagiri bakoitzean jasotako zenbatekoa.<br><br>- Jarduera nagusia paperean egiten duen proiektuaren zati digitalari dagokionez, onuradunak 2025ean Interneten argitaratutako edukien (albisteak eta ikus-entzunezkoak) zerrenda bat erantsi beharko du, argitalpen-dataren arabera ordenatuta.<br><br>- Halaber, kontratatu dituen langileen eta laguntzaileen zerrenda erantsi beharko du | d) En función del tipo de proyecto comunicativo de que se trate:<br><br>1.º Si su actividad principal es en papel y digital:<br><br>- Estará obligada a la remisión al Servicio de Euskera, en formato papel, de todos los números y suplementos que hubiera distribuido durante el año 2025, salvo los que ya hubiera enviado junto a la solicitud, en los términos especificados en la Base 6.2.f) 1.º<br><br>- De forma específica, y si no lo hubiera hecho conforme a la Base 17.2.b) 2.º, la beneficiaria deberá concretar los gastos correspondientes a imprenta, y a distribución: sus importes, y el número de ejemplares impresos, y distribuidos, que dan lugar al importe contenido en cada factura o justificante de gasto correspondiente a tales conceptos.<br><br>- En relación con la parte digital del proyecto cuya actividad principal sea en papel, la beneficiaria deberá adjuntar un listado de los contenidos (noticias y audiovisuales) publicados en Internet en 2025, ordenado en función de su fecha de publicación.<br><br>- Asimismo, deberá adjuntar un listado con las personas trabajadoras y colaboradoras que |



Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: V62A-JWF2-IDQP-G6M8
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| (langileen kategoria, kontratu-harremanaren hasiera- eta amaiera-data eta arduraldia zehaztuta).<br><br>2) Jarduera nagusia digitala bada:<br><br>- Onuradunak 2025ean Interneten argitaratutako edukien (albisteak eta ikus-entzunezkoak) zerrenda bat erantsi beharko du, argitalpen-dataren arabera ordenatuta.<br><br>- Halaber, kontratatu dituen langileen eta laguntzaileen zerrenda erantsi beharko du (langileen kategoria, kontratu-harremanaren hasiera- eta amaiera-data eta arduraldia zehaztuta).<br><br>3) Jarduera nagusia ikus-entzunezkoa bada:<br><br>- Onuradunak bere programazioaren lagin zehatz bat erantsi beharko du.<br><br>- Onuradunak 2025ean Interneten argitaratutako edukien (albisteak eta ikus-entzunezkoak) zerrenda bat erantsi beharko du, argitalpen-dataren arabera ordenatuta.<br><br>- Halaber, kontratatu dituen langileen eta laguntzaileen zerrenda erantsi beharko du (langileen kategoria, kontratu-harremanaren hasiera- eta amaiera-data eta arduraldia zehaztuta). | hubiere contratado (categoría de las trabajadoras, fecha de inicio y finalización de la relación contractual, y dedicación).<br><br>2.º Si su actividad principal es digital:<br><br>- La beneficiaria deberá adjuntar un listado de los contenidos (noticias y audiovisuales) publicados en Internet en 2025, ordenado en función de su fecha de publicación.<br><br>- Asimismo, deberá adjuntar un listado con las personas trabajadoras y colaboradoras que hubiere contratado (categoría de las trabajadoras, fecha de inicio y finalización de la relación contractual, y dedicación).<br><br>3.º Si su actividad principal es audiovisual:<br><br>- La beneficiaria deberá adjuntar una muestra concreta de su programación.<br><br>- La beneficiaria deberá adjuntar un listado de los contenidos (noticias y audiovisuales) publicados en Internet en 2025, ordenado en función de su fecha de publicación.<br><br>- Asimismo, deberá adjuntar un listado con las personas trabajadoras y colaboradoras que hubiere contratado (categoría de las trabajadoras, fecha de inicio y finalización de la relación contractual, y dedicación). |
| 3. Jasotako dirulaguntza 100.000 eurotik gorakoa balitz, eta maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan (Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen du foru-arau horrek) eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Erregelamenduko 59. artikuluan xedatutakoaren arabera, onuradunak justifikazioko kontua eta Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatutako kontu-auditore batek egindako txostena aurkeztuta egingo du proiektuaren justifikazioa. 2026ko otsailaren 27ra arteko epea (hori barne) izango du horiek aurkezteko. Justifikazioko kontua Ogasun eta Finantza | 3. Si la subvención recibida fuese superior a los 100.000 euros, y conforme a lo dispuesto en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral y en el artículo 59 del Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, la justificación del proyecto realizado por parte de la beneficiaria se realizará mediante la presentación, hasta el 27 de febrero de 2026 (incluido), de una cuenta justificativa con aportación de informe de una persona auditora de cuentas inscrita como ejerciente en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas, |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: V62A-JWF2-IDQP-G6M8
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| Saileko foru-diputatuaren apirilaren 15eko 945/2011 Foru Aginduaren eranskineko 3. eta 7. artikuluetan ezarritako irismenaren eta edukien arabera berrikusi beharko da; agindu horren bidez, foru-sektore publikoko dirulaguntzen justifikazioko kontuak berrikusteko lanak egiteko kontu-auditoreen jardun-arauak onartzen dira. Bada, justifikazioko kontuak, gutxienez, jarraian adieraziko den informazioa jaso beharko du, eta diruz lagundutako proiektu komunikatiboari dagokion onuradunaren jardueraren zatiari buruzkoa baino ez da izango. | debiendo realizarse la revisión de la cuenta justificativa con el alcance y contenidos establecidos en los artículos 3 y 7 del anexo de la Orden Foral 945/2011, de 15 de abril, del Diputado Foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, por la que se aprueban las normas de actuación de las personas auditoras de cuentas en la realización de los trabajos de revisión de cuentas justificativas de subvenciones, en el ámbito del sector público foral, y deberá contener la información que se indica a continuación, y referirse única y exclusivamente a la parte de la actividad de la beneficiaria relativa al proyecto comunicativo subvencionado: |
| a) Eginiko jarduerak justifikatzeko memoria. | a) Memoria justificativa de las actuaciones desarrolladas. |
| b) Eginiko proiektu komunikatiboaren kostua justifikatzen duen txosten ekonomikoa (eredua Euskara Zerbitzutik bidaliko da), honako alderdi hauek jasoko dituena: | b) Una memoria económica justificativa del coste del proyecto comunicativo desarrollado, cuyo modelo se remitirá desde el Servicio de Euskera, y que contendrá: |
| 1) Eginiko proiektuari egotzitako gastu eta sarreren egoera-orria. | 1.º Estado de gastos e ingresos imputados al proyecto desarrollado. |
| 2) Aurreko 1. apartatuan adierazitako gastuen egoera-orriko kontzeptu bakoitzeko, diruz lagundutako proiektuaren gastuen zerrenda sailkatu bat egingo da, hartzekoduna, agiri-zenbakia, zenbatekoa eta igorpen- zein ordainketa-eguna jasotzen dituena. Justifikazioa egiteko epea amaitzen den egunean ordainduta dauden gastuak baino ez dira kontuan hartuko. | 2.º Para cada uno de los conceptos que componen el estado de gastos señalado en el apartado 1º anterior, se elaborará una relación clasificada de los gastos del proyecto subvencionado, con identificación del acreedor, número de documento, importe y fecha de emisión y pago. Solo se tendrán en cuenta gastos efectivamente abonados a la fecha de fin de plazo de justificación. |
| Enpresen kasuan, berankortasunari buruz aplikatzekoa den araudian aurreikusitako epeetan egindako ordainketen fakturak eta dokumentuak soilik aurkeztu ahal izango dira. | En el caso de empresas, solo podrán aportarse las facturas y documentos que soporten los pagos realizados en los plazos previstos en la normativa sobre morosidad que resulte de aplicación. |
| Egiaztagirien eta fakturen zerrenda sailkatu hori, zeinean haien zenbatekoak eta dagokien aurrekontuaren partida adieraziko diren, oinarritzat hartuko du auditoreak proiektuaren amaierako aurrekontua gauzatutzat jotzeko. | Este listado ordenado de justificantes y facturas, en el que se señale su importe y la partida del presupuesto a la que corresponde, se tomará como base por la auditora para considerar como ejecutado el presupuesto final del proyecto. |
| 3) Sarreren egoera-orriko partida bakoitzeko, aurreko 1) apartatuan adierazitako diru-sarreren | 3.º Para cada una de las partidas que componen el estado de ingresos, una relación detallada de |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: V62A-JWF2-IDQP-G6M8
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| zerrenda sailkatu bat egingo da (dirulaguntzena eta bestelako sarrerena), zenbatekoa eta jatorria adierazten dituena. | los ingresos que se mencionan en el apartado 1º anterior, de las subvenciones o de otros ingresos, indicando importe y procedencia. |
| Auditoreak zerrenda hori ere oinarritzat hartuko du proiektuaren betearazitako aurrekontua orekatua den ebazteko. | Esta relación también se tomará como base por la auditora para determinar el equilibrio del presupuesto ejecutado del proyecto. |
| c) Bestalde, dokumentu hauek erantsi beharko zaizkio proiektuaren justifikazioko kontuari: | c) Asimismo, la cuenta justificativa del proyecto deberá adjuntar la siguiente documentación: |
| 1) Entitate eskatzailean behar besteko ahalmena duen pertsona batek sinatutako zinpeko aitorpena, honako hau egiaztatzen duena: diruz lagundutako proiektuari egotzi ahal zaizkion sarrera bakarrak 3) apartatuan berariaz adierazitakoak dira. | 1.º Declaración jurada suscrita por una persona de la entidad con poder suficiente en la que se manifieste que no existen otros ingresos imputables al proyecto subvencionado al margen de los expresamente recogidos en el apartado 3º anterior. |
| 2) Adieraziko da zein irizpide erabili diren aurreko 2) apartatuan adierazten diren kostu orokorrak eta/edo zeharkako kostuak banatzeko. | 2.º Indicación de los criterios de reparto de los costes generales y/o indirectos incorporados en la relación a que se hace referencia en el apartado 2º anterior. |
| 3) Onuradunak gutxienez hiru hornitzailek egin dizkioten eskaintzak justifikatzeko agiriak aurkeztu beharko ditu, baldin eta administrazio-kontratazioko araudian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak gainditzen badira (Dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauaren 29.3 artikulua), salbu eta kontratuaren ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan ez badago halakorik egin dezakeen erakunde nahikorik edo gastua eskabidea aurkeztu aurretik egin bada. Proposamen ekonomikorik onena aukeratzen ez denean, memoria baten bidez justifikatu beharko da zergatik egin den aukeratutako hornitzailearen alde. | 3.º La beneficiaria debe aportar justificación documental que acredite como mínimo las ofertas de los tres diferentes proveedores realizadas cuando se superen las cuantías establecidas en la correspondiente normativa de contratación administrativa para el contrato menor (art. 29.3 de la Norma Foral 5/2005 de Subvenciones), salvo que por las especiales características de este no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo presten o que el gasto se haya realizado con anterioridad a la solicitud. Deberá justificar en una memoria la elección del proveedor cuando la misma no recaiga en la propuesta económica más ventajosa. |
| 4) Hala badagokio, diruz lagundutako jardueraren kostuari dagokionez finantzaketa gehiegizkoa izan daitekeela identifikatzea. | 4.º Identificación, en su caso, del posible exceso de financiación obtenido sobre el coste de la actividad subvencionada. |
| 5) Proiektua gauzatzeko prestatutako esku-egitarauak, kartelak, argazkiak, argitalpenak, ikus-entzunezko zein informatikako materiala eta bestelako dokumentazio grafikoa; haietan, erraz ikusteko eran agertu behar da jarduera horretarako dirulaguntza eman duela Bizkaiko Foru Aldundiak. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde-elementuak sartuko dira | 5.º Ejemplares de mano, carteles, fotografías, publicaciones, material audiovisual e informático, así como cualquier otra documentación de carácter gráfico elaborada para el desarrollo del programa, debiendo constar en lugar visible en los mismos, que la actividad ha sido subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia, a cuyos efectos se insertarán en éstos los |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: V62A-JWF2-IDQP-G6M8
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| material horietan, foru-dekretu honen 18. oinarriaren e) letran ezarritakoarekin bat etorrita. Laguntza eman dela jakinarazi ondoren egindako jarduerei bakarrik dagokie betebehar hori. | elementos institucionales de ésta, en los términos previstos en la letra e) de la base 18 del presente decreto foral. Dicha obligación afecta a las actividades realizadas una vez que ha sido notificada la concesión de la subvención. |
| d) Proiektu komunikatiboa zer motatakoa den:<br><br>1) Jarduera nagusia paperean eta digitalki egiten badute:<br><br>- Onuradunak paperean bidali beharko dizkio Euskara Zerbitzuari 2025. urtean banatutako zenbaki eta gehigarri guztiak, salbu eta eskabidearekin batera bidali dituenak, 6.2.f)1 oinarrian zehaztutako moduan.<br><br>- Zehazki, eta 17.2.b)2) oinarriaren arabera egin ez badu, onuradunak zehaztu egin beharko ditu inprimatze- eta banaketa-gastuak: zehaztu beharko du gastuon zenbatekoa eta inprimatu zein banatutako aleen kopurua, kopuru horiek sorraraziko baitituzte faktura edo gastu-egiaztagiri bakoitzean jasotako zenbatekoak.<br><br>- Jarduera nagusia paperean egiten duen proiektuaren zati digitalari dagokionez, onuradunak 2025ean Interneten argitaratutako edukien (albisteak eta ikus-entzunezkoak) zerrenda bat erantsi beharko du, argitalpen-dataren arabera ordenatuta.<br><br>- Halaber, kontratatu dituen langileen eta laguntzaileen zerrenda erantsi beharko du (langileen kategoria, kontratu-harremanaren hasiera- eta amaiera-data eta arduraldia zehaztuta).<br><br>2) Jarduera nagusia digitala bada:<br><br>- Onuradunak 2025ean Interneten argitaratutako edukien (albisteak eta ikus-entzunezkoak) zerrenda bat erantsi beharko du, argitalpen-dataren arabera ordenatuta. | d) En función del tipo de proyecto comunicativo de que se trate:<br><br>1.º Si su actividad principal es en papel y digital:<br><br>- Estará obligada a la remisión al Servicio de Euskera, en formato papel, de todos los números y suplementos que hubiera distribuido durante el año 2025, salvo los que ya hubiera enviado junto a la solicitud, en los términos especificados en la Base 6.2.f) 1.º.<br><br>- De forma específica, y si no lo hubiera hecho conforme a la Base 17.3.b) 2.º, la beneficiaria deberá concretar los gastos correspondientes a imprenta, y a distribución: sus importes, y el número de ejemplares impresos, y distribuidos, que dan lugar al importe contenido en cada factura o justificante de gasto correspondiente a tales conceptos.<br><br>- En relación con la parte digital del proyecto cuya actividad principal sea en papel, la beneficiaria deberá adjuntar un listado de los contenidos (noticias y audiovisuales) publicados en Internet en 2025, ordenado en función de su fecha de publicación.<br><br>- Asimismo, deberá adjuntar un listado con las personas trabajadoras y colaboradoras que hubiere contratado (categoría de las trabajadoras, fecha de inicio y finalización de la relación contractual, y dedicación).<br><br>2.º Si su actividad principal es digital:<br><br>- La beneficiaria deberá adjuntar un listado de los contenidos (noticias y audiovisuales) publicados en Internet en 2025, ordenado en función de su fecha de publicación. |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: V62A-JWF2-IDQP-G6M8
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| - Halaber, kontratatu dituen langileen eta laguntzaileen zerrenda erantsi beharko du (langileen kategoria, kontratu-harremanaren hasiera- eta amaiera-data eta arduraldia zehaztuta).<br><br>3) Jarduera nagusia ikus-entzunezkoa bada:<br><br>- Onuradunak bere programazioaren lagin zehatz bat erantsi beharko du.<br><br>- Onuradunak 2025ean Interneten argitaratutako edukien (albisteak eta ikus-entzunezkoak) zerrenda bat erantsi beharko du, argitalpen-dataren arabera ordenatuta.<br><br>- Halaber, kontratatu dituen langileen eta laguntzaileen zerrenda erantsi beharko du (langileen kategoria, kontratu-harremanaren hasiera- eta amaiera-data eta arduraldia zehaztuta). | - Asimismo, deberá adjuntar un listado con las personas trabajadoras y colaboradoras que hubiere contratado (categoría de las trabajadoras, fecha de inicio y finalización de la relación contractual, y dedicación).<br><br>3.º Si su actividad principal es audiovisual:<br><br>- La beneficiaria deberá adjuntar una muestra concreta de su programación.<br><br>- La beneficiaria deberá adjuntar un listado de los contenidos (noticias y audiovisuales) publicados en Internet en 2025, ordenado en función de su fecha de publicación.<br><br>- Asimismo, deberá adjuntar un listado con las personas trabajadoras y colaboradoras que hubiere contratado (categoría de las trabajadoras, fecha de inicio y finalización de la relación contractual, y dedicación). |
| 4. Onuradunak aurkeztutako justifikazioa ebaluatzeko, jarraipen-batzorde bat izendatu ahal izango da, proiektua epaimahai kalifikatzaileak baloratutako baldintzetan garatu den aztertzeko.<br><br>Kasu horretan, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru-diputatuak izendatuko ditu jarraipen-batzordeko kideak, foru-agindu bidez. Izendapen horiek egiteko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 44. artikuluan ezarritakoa beteko da.<br><br>Era berean, batzordeko kideek behar besteko gaitasun teknikoa, administratiboa, funtzionala eta zuzendaritzakoa izango dute deialdi honen xede diren proiektu komunikatiboei dagokien justifikazioa aurkezteko baldintzak behar bezala baloratzeko. | 4. Para la evaluación de la justificación presentada por la beneficiaria podrá nombrarse una Comisión de Seguimiento que examine si el proyecto se ha desarrollado en los términos valorados por el Tribunal calificador.<br><br>En tal caso, las personas integrantes de esta Comisión de Seguimiento serían designadas por la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia, mediante orden foral. A tal efecto, se cumplirá lo establecido en el artículo 44 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad entre Mujeres y Hombres.<br><br>Asimismo, contarán con la capacidad técnica, administrativa, funcional y directiva suficiente para la adecuada apreciación de los términos en que se presente la justificación correspondiente a los proyectos comunicativos objeto de la presente convocatoria. |
| | |
| 18. oinarria. *Dirulaguntzaren onuradunaren beste betebehar batzuk.* | Base 18. *Otras obligaciones de la beneficiaria de la subvención.* |
| Onuradunak betebehar hauek ere izango ditu: | La beneficiaria estará igualmente obligada a: |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: V62A-JWF2-IDQP-G6M8
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| a) Dirulaguntza emateko orduan kontuan hartu den edozein alderdi objektibo edo subjektibok aldaketarik izan badu, horren berri ematea Euskara Zerbitzuari, egoitza elektronikoaren bitartez. | a) Comunicar mediante sede electrónica al Servicio de Euskera la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención. |
| b) Jardueraren hasiera-dataren eta amaiera-dataren berri ematea Euskara Zerbitzuari, egoitza elektronikoaren bitartez. Halaber, erraztu egin beharko ditu diruz lagundutako jarduera kontrolatzeko, haren jarraipena egiteko edo jarduera ikuskatzeko eginkizunak edo ahalmenak gauzatzeko lanak. | b) Comunicar mediante sede electrónica al Servicio de Euskera las fechas de inicio y de terminación de la actividad y facilitar la realización de las funciones o facultades de control, seguimiento e inspección de la actividad subvencionada. |
| c) Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailari laguntzea, hala eskatzen bazaio, eta erakundearen gaineko edozein informazio ematea (azterlanak, inkestak, datu estatistikoak, etab.). | c) Colaborar con el Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte en aquellos supuestos en que le sea requerido, aportando cualquier tipo de información relativa al ámbito de la entidad (estudios, encuestas, datos estadísticos, etc.). |
| d) Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailak, Ogasun eta Finantzen Foru Sailak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiten dituzten egiaztapen-jardueren menpe jartzea. | d) Someterse a cuantas actuaciones de comprobación efectúen los Departamentos Forales de Euskera, Cultura y Deporte, y de Hacienda y Finanzas, así como el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas. |
| e) Proiektu komunikatiboak Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa agerrarazi beharko du dirulaguntza eman ondoren editatutako material guztietan eta jendaurreko agerraldi guztietan, eta, horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde-irudiak baliatuko ditu nahitaez. Bizkaiko Foru Aldundiaren babes horrek ikusgai egon behar du proiektu komunikatiboaren leku nabarmen batean, eta horretarako, baldintza hauek bete beharko dira: | e) El proyecto comunicativo deberá incluir el patrocinio de la Diputación Foral de Bizkaia en todo material y comparecencia pública realizada con posterioridad a la concesión, y para ello utilizará obligatoriamente los elementos establecidos en la imagen corporativa de la Diputación Foral de Bizkaia. Dicho patrocinio de la Diputación Foral de Bizkaia deberá aparecer en un lugar destacable del proyecto comunicativo, y habrá de realizarse de la siguiente manera: |
| 1) Jarduera nagusia paperean eta digitalki egiten duten proiektu komunikatiboen kasuan, honako hauek jaso beharko ditu:<br><br>- Euskararen txantxangorriaren irudia.<br><br>- Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoa. Horrekin batera, honako esaldi hau, hitzez hitz: «Hedabide honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du» edo «Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako hedabidea». | 1.º En el caso de proyectos comunicativos cuya actividad principal sea en papel y digital, deberá incluir:<br><br>- La imagen del “euskararen txantxangorria”.<br><br>- El logotipo de la Diputación Foral de Bizkaia. Junto a él, la siguiente frase literal: «Hedabide honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du» o bien «Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako hedabidea». |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: V62A-JWF2-IDQP-G6M8
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| - Proiektuaren bertsio digitalean, logotipoa eta hitzez hitzeko esaldi bera jarri beharko dira, argitalpenaren kredituak (editorea, helbidea, erredakzioa, ale-kopurua, etab.) adierazten diren leku berean, eta, hori ezinezkoa bada, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zuzendaritza Nagusiarekin adostuko du zein den lekurik egokiena dagokion garrantzia eta ikusgarritasuna izan dezan. | - En la versión digital del proyecto, habrá de incluirse el logotipo junto a la misma frase literal en el mismo lugar en que se indiquen los créditos de la publicación (editor, dirección, redacción, tirada, etc.), y, si ello no fuera posible, acordará con la Dirección General de Euskera de la Diputación Foral de Bizkaia el lugar más adecuado para que disponga de la consiguiente relevancia y visibilidad. |
| 2) Jarduera nagusia paperean egiten duten proiektu komunikatiboen kasuan, honako hauek jaso beharko ditu: | 2.º En el caso de proyectos comunicativos cuya actividad principal sea digital, deberá incluir: |
| - Euskararen txantxangorriaren irudia. | - La imagen del “euskararen txantxangorria”. |
| - Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoa. Horrekin batera, honako esaldi hau, hitzez hitz: «Hedabide honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du» edo «Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako hedabidea». Logotipo hori argitalpenaren kredituak (editorea, helbidea, erredakzioa, ale-kopurua, etab.) adierazten diren leku berean jarriko da, eta, hori ezinezkoa bada, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zuzendaritza Nagusiarekin adostuko du zein den lekurik egokiena dagokion garrantzia eta ikusgarritasuna izan dezan. | - El logotipo de la Diputación Foral de Bizkaia. Junto a él, la siguiente frase literal: «Hedabide honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du» o bien «Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako hedabidea». Este logotipo se incluirá en el mismo lugar en que se indiquen los créditos del medio (editor, dirección, redacción, tirada, etc.), y, si ello no fuera posible, acordará con la Dirección General de Euskera de la Diputación Foral de Bizkaia el lugar más adecuado para que disponga de la consiguiente relevancia y visibilidad. |
| 3) Jarduera nagusia ikus-entzunezkoa duten proiektu komunikatiboen kasuan, honako hauek jaso beharko ditu: | 3.º En el caso de proyectos comunicativos cuya actividad principal sea audiovisual, deberá incluir: |
| - Euskararen txantxangorriaren irudia. | - La imagen del “euskararen txantxangorria”. |
| - Publizitate-ohar bat, Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoarekin. Horrekin batera, honako esaldi hau, hitzez hitz: «Hedabide honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du» edo «Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako hedabidea». Publizitate-ohar hori gutxienez egunean 4 aldiz txertatuko da: birritan ikus-entzule gehien dagoen ordutegian (21:00-24:00), hirugarrenez goizean eta laugarrenez eguerdian. | - Una nota publicitaria con el logotipo de la Diputación Foral de Bizkaia. Junto a él, la siguiente frase literal: «Hedabide honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du» o bien «Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako hedabidea». Esta nota publicitaria se insertará al menos 4 veces al día, 2 en horario de máxima audiencia (21:00-24:00), la tercera durante la mañana, y la cuarta durante el mediodía. |
| - Proiektuaren bertsio digitalean, logotipoa eta hitzez hitzeko esaldi bera jarri beharko dira, hedabidearen kredituak (editorea, helbidea, | - En la versión digital del proyecto, habrá de incluirse el logotipo junto a la misma frase literal en el mismo lugar en que se indiquen los créditos |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: V62A-JWF2-IDQP-G6M8
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| erredakzioa, ale-kopurua, etab.) adierazten diren leku berean, eta, hori ezinezkoa bada, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zuzendaritza Nagusiarekin adostuko du zein den lekurik egokiena dagokion garrantzia eta ikusgarritasuna izan dezan. | del medio (editor, dirección, redacción, tirada, etc.), y, si ello no fuera posible, acordará con la Dirección General de Euskera de la Diputación Foral de Bizkaia el lugar más adecuado para que disponga de la consiguiente relevancia y visibilidad. |
| f) Onuradunak gutxienez euskaraz egin beharko ditu diruz lagundutako argitalpenaren publizitatea eta kanpo-komunikazio guztia. | f) La beneficiaria deberá realizar por lo menos en euskera toda publicidad y comunicación exterior de la publicación subvencionada. |
| g) Bizkaiko Foru Aldundiari dohainik eta esklusibitaterik gabe lagatzea aurkeztutako dokumentazioan dagoen informazio tekniko eta grafikoa erabiltzeko eskubidea, informazio hori zabaltzeko edo/eta argitaratzeko, edozein baliabide edo formatu bibliografiko, ikus-entzunezko edo informatiko erabiliz edo teknikaren erabilerak ahalbidetzen duen beste edozein erabiliz. | g) Ceder, con carácter gratuito y no exclusivo, a la Diputación Foral de Bizkaia el derecho de utilización de la información técnica y gráfica contenida en la documentación presentada, para su divulgación y/o publicación en cualesquiera medios y formatos bibliográficos, audiovisuales, informáticos o que permita el uso de la técnica. |
| h) Edozein kasutan ere, onuradunak beste interesdun batzuen aurretik eman behar dio lehentasuna Foru Aldundiari, diruz lagundutako esku-hartzeari buruzko memoria argitaratzeko. | h) En todo caso la beneficiaria deberá ofrecer a la Diputación Foral de Bizkaia, con carácter preferente respecto de otras personas interesadas, la publicación de la memoria de la intervención subvencionada. |
| i) Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zuzendaritza Nagusiak deitutako bilera, foro eta gainerako koordinazio-ekitaldietara joatea. | i) Asistir a las reuniones, foros, comisiones y demás actos de coordinación convocados por la Dirección General de Euskera de la Diputación Foral de Bizkaia. |
| j) Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea lanpostuen definizioan, sarbidean, kontratazioan eta iraungipenean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasunean eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzunkidetasunean, bizitza pertsonala, lana eta familia bateragarri egitearen arloan, lanaren kalitate eta egonkortasunean, lanaldiaren iraupen eta antolamenduan, ekintza sindikalean, ordezkaritzan eta negoziazio kolektiboan, betiere diskriminaziorik sortzen ez duten lan-baldintza duin eta gizalegezkoak bermatuta. | j) Promover la igualdad de mujeres y hombres en la definición de los puestos de trabajo, acceso, contratación y extinción, clasificación profesional, promoción, formación, seguridad y salud laboral, política retributiva, corresponsabilidad y conciliación de la vida personal, laboral y familiar, calidad y estabilidad laboral, duración y ordenación de la jornada laboral, y en la acción sindical, representación y negociación colectiva, asegurando unas condiciones laborales dignas, decentes y no discriminatorias. |
| k) Emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izan daitezen zaintzea, eta berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzukidetasuna, eta generoaren rol eta identitateen aniztasuna balio | k) Velar por que el tratamiento, protagonismo y valoración de mujeres y hombres sea equivalente y el fomento de una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: V62A-JWF2-IDQP-G6M8
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| dituen irudi bat sustatzea idatzizko zein ahozko komunikazioetan, ikonografian, publizitate-ekintzetan, barruko zein kanpoko komunikazio formal eta informalean, eta proiektuari edo jarduerari lotutako edo proiektua edo jarduera egiteko sortutako materialetan. | identidades de género, tanto en la información escrita, oral, iconográfica, acciones publicitarias, comunicación interna y externa, formal e informal como en los materiales generados o relacionados con la ejecución del proyecto o actividad. |
| l) Diruz lagundutako proiektua garatzen ari den bitartean hizkera sexistarik ez erabiltzea sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrietan (idatzietan, irudietan, eta abarretan), eta sortzen den pertsonei buruzko edozein estatistiketan datuak sexuaren arabera bereizita jasotzea, hala ezartzen baitu arlo horretan gorde behar diren printzipio nagusiak jasotzen dituen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 3. artikuluak. | l) Asumir, en la ejecución del proyecto subvencionado, el uso no sexista de todo tipo de lenguaje (documental, visual, etc.) en cualquier soporte escrito o digital, y desagregar los datos por sexo en cualquier estadística referida a personas que, en su caso, se genere, todo ello al amparo del artículo 3 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio de 2018, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, en el que se señalan los principios generales que deberán respetarse. |
| m) Egiaztatzea, hala dagokionean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat datorren plan bat dutela emakumeen eta gizonen berdintasunerako, eta benetan aplikatzen dutela. Horretarako, betebehar hori betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute justifikazioarekin batera. | m) Acreditar, cuando proceda, el cumplimiento de la obligación de disponer de un Plan para la Igualdad de mujeres y hombres, conforme a lo previsto en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo de 2007, para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres, así como de su aplicación efectiva. A estos efectos, deberán cumplimentar, junto con la justificación, declaración responsable del cumplimiento de esta obligación. |
| n) Hala badagokio, lanean sexu-askatasunaren eta osotasun moralaren aurkako delituak eta bestelako jokabideak saihesteko lan-baldintzak sustatu beharko dira, arreta berezia jarrita sexu-jazarpenean eta sexuan oinarritutako jazarpenean, eremu digitalean egiten direnak barne. | n) Se deberán promover, en su caso, condiciones de trabajo que eviten la comisión de delitos y otras conductas contra la libertad sexual y la integridad moral en el trabajo, incidiendo especialmente en el acoso sexual y el acoso por razón de sexo, incluidos los cometidos en el ámbito digital. |
| ñ) Enpresen kasuan, onuraduna behartuta dago enpresa-deslokalizaziorik ez egitera, martxoaren 27ko 7/2007 Foru Arauaren 3. artikuluan ezarritakoaren arabera. | ñ) En el caso de empresas, la beneficiaria queda obligada a no incurrir en deslocalización empresarial atendiendo a lo establecido en el artículo 3 de la Norma Foral 7/2007 de 27 de marzo. |
| o) Deialdi honi dagokionez, foru-dirulaguntza baten onuradunek bete egin behar dituzte 5/2005 Foru Arauaren 27. artikuluan eta Dirulaguntzen Erregelamenduaren 53. artikuluan azpikontratazioa dela-eta zehazten diren betekizunak eta debekuak. Gehienez ere, diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 90 | o) A los efectos de la presente convocatoria, las personas beneficiarias de subvención foral quedan obligadas al cumplimiento de los requisitos y prohibiciones regulados en el artículo 27 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, y en el artículo 53 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, en materia de |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: V62A-JWF2-IDQP-G6M8
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| azpikontratatu ahal izango da. | subcontratación. El porcentaje máximo de subcontratación admisible será del 90 % del importe de la actividad subvencionada. |
| Oinarri hauen ondorioetarako, azpikontrataziotzat hartuko da dirulaguntzaren erakunde onuradunak hirugarrenekin dirulaguntzaren xede den jarduera oso-osorik edo zati batean gauzatzea. Apartatu honetatik kanpo geratzen dira diruz lagundutako jarduera beren kabuz egiteko nahitaez egin beharreko kontratazioari dagozkion gastuak. | A los efectos de estas bases, se entenderá que un beneficiario subcontrata cuando concierta con un tercero la ejecución total o parcial de la actividad que constituye el objeto de la subvención. Quedan excluidos de este apartado los gastos de contratación obligatoria para la realización por sí mismos de la actividad subvencionada. |
| Inola ere ezingo dira azpikontratatu diruz lagundutako jardueraren kostua handitu arren jarduera horri balio erantsirik ez dakarkioten jarduketak. | En ningún caso podrán subcontratarse acciones que, aumentando el coste de la actividad subvencionada, no aporten valor añadido a su contenido. |
| Era berean, onuradunak ezin izango ditu diruz lagundutako jarduerak azpikontratatu honako hauekin: | Asimismo, el beneficiario no podrá subcontratar las actividades subvencionadas con: |
| 1) Dirulaguntzen onuradun izatea eragozten duen egoeraren batean dauden pertsonak edo erakundeak. | 1.º Personas o entidades que se encuentren en alguna de las situaciones que impiden obtener la condición de beneficiario de las subvenciones. |
| 2) Kontratatu nahi den jarduerarako beste dirulaguntza batzuk jaso dituzten pertsonak edo erakundeak. | 2.º Personas o entidades que hayan recibido otras subvenciones para la actividad que se pretende contratar. |
| Hirugarrenekin hitzarturiko jarduera dirulaguntzaren zenbatekoaren % 20tik gorakoa bada, eta zenbateko hori 60.000,00 euro baino handiagoa bada, azpikontratazioak honako baldintza hauek bete beharko ditu: | Cuando la actividad concertada con terceros exceda del 20 por ciento del importe de la subvención y dicho importe sea superior a 60.000 euros, la subcontratación estará sometida al cumplimiento de los siguientes requisitos: |
| 1) Kontratua idatziz egin beharko da.<br>2) Kontratua egin baino lehen, dirulaguntza ematen duen erakundeak baimena eman beharko du, oinarri arautzaileetan zehazten den moduan. | 1.º Que el contrato se celebre por escrito.<br>2.º Que la celebración del mismo se autorice previamente por la entidad concedente de la subvención en la forma que se determine en las bases reguladoras. |
| Ezingo da kontraturik zatitu, hari dagokion zenbatekoa gutxitu eta aurreko apartatuko betekizunak bete beharra saihesteko. | No podrá fraccionarse un contrato con el objeto de disminuir la cuantía del mismo y eludir el cumplimiento de los requisitos exigidos en el apartado anterior. |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: V62A-JWF2-IDQP-G6M8
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| Nolanahi ere, eta dirulaguntzaren zenbatekoa gorabehera, diruz lagundutako jarduera osorik edo partzialki gauzatzea onuradunarekin lotutako pertsona edo erakundeekin hitzartzen denean, beharrezkoa izango da:<br><br>1) Kontratazioa merkatuko baldintza normalen arabera egitea. Horretarako, onuradunak gutxienez ere hiru hornitzaileri eskatu beharko die eskaintza aldez aurretik, salbu eta azpikontratatutako jardueren ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan ez badago halakoak ematen dituen nahikoa erakunderik edo gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin bada.<br><br>2) Organo emailearen aldez aurreko baimena lortzea. | En cualquier caso, e independientemente del importe de la subvención, cuando se concierte la ejecución total o parcial de la actividad subvencionada con personas o entidades vinculadas con la persona beneficiaria, será necesario:<br><br>1.º Que la contratación se realice de acuerdo con las condiciones normales de mercado para lo que será preciso que la persona beneficiaria solicite, con carácter previo, como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, salvo que por las especiales características de las actividades subcontratadas no exista en el mercado suficiente número de entidades que las presten, o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención.<br><br>2.º Que se obtenga la previa autorización del órgano concedente. |
| p) Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Erregelamenduaren 54. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako gainerakoak. | p) Las demás previstas en el artículo 13 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y en los artículos 54 y siguientes del Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo. |
| | |
| 19. oinarria. *Itzulketa.* | Base 19. *Reintegro.* |
| 1. Jasotako dirulaguntza eta dagozkion berandutze-interesak itzuli egin beharko dira, foru-dekretu honetan ezarritako betebeharren bat betetzen ez denean, edo Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan edo Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Erregelamenduan aurreikusitako kausaren bat gertatzen denean, besteak beste: | 1. Procederá el reintegro de la subvención recibida y los intereses de demora correspondientes, cuando se incumplan alguna o algunas de las obligaciones establecidas en el presente decreto o se incurra en alguna de las causas previstas en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, o en el Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, entre otras: |
| a) Dirulaguntza lortzeko, bete beharreko baldintzak faltsutu edo laguntza jasotzea | a) Obtención de la subvención falseando las condiciones requeridas para ello u ocultando |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: V62A-JWF2-IDQP-G6M8
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| galaraziko luketen datuak ezkutatzen direnean. | aquellas que lo hubieran impedido. |
| b) Xedea, jarduera, proiektua edo dirulaguntza emateko funtsa den jokaera oso-osorik edo zati batean betetzen ez denean. | b) Incumplimiento total o parcial del objetivo, de la actividad, del proyecto o la no adopción del comportamiento que fundamentan la concesión de la subvención. |
| c) Justifikazioaren betebeharra betetzen ez denean. | c) Incumplimiento de la obligación de justificación. |
| d) Justifkaziorik egiten ez denean edo justifikazio hori behar adinakoa ez denean, justifikatu gabeko dirulaguntzaren zatia itzuli egin beharko da, dagozkion berandutze-interesak barne, Euskara Zerbitzuak horretarako errekerimendua egin ondoren. | d) La justificación insuficiente o deficiente conllevará la obligación de reintegro, incluidos los correspondientes intereses de demora, de la parte de la subvención no justificada, previo requerimiento por parte del Servicio de Euskera de la Diputación Foral de Bizkaia. |
| e) Ezarritako kontrol-jarduketak direla eta, ezetza ematen denean edo eragozpenak ipintzen direnean. | e) La negativa u obstrucción a las actuaciones de control establecidas. |
| f) Foru-dekretu honetan ezarritako gainerako baldintzak betetzen ez direnean. | f) Incumplir los demás supuestos previstos en el presente decreto foral. |
| 2. Dirulaguntza jaso duen jarduketaren kostua baino finantzaketa handiagoa jasotzen bada, laguntza itzuli egin beharko da. | 2. El exceso de financiación, con relación al coste de la actividad subvencionada, también constituirá motivo de reintegro. |
| Itzulketa-prozedura aplikatzekoa den dirulaguntzak arautzeko araudian xedatutakoaren arabera izapidetuko da. | El procedimiento de reintegro se tramitará con sujeción a lo dispuesto en la normativa reguladora de subvenciones que resulte de aplicación. |
| Era berean, eta hala badagokio, enpresaren deslokalizazioa deklaratzea ere dirulaguntza itzultzeko arrazoi izango da, gai hori arautzen duen foru-araudian xedatutakoa aplikatuz. | Asimismo, y en su caso, constituirá motivo de reintegro la declaración de deslocalización empresarial, en aplicación de lo dispuesto en la normativa foral que regula la materia. |
| | |
| 20. oinarria. *Datu pertsonalen babesa* | Base 20. *Protección de datos de carácter personal.* |
| Aplikatu beharrekoa izango da Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 208ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, eta aurrekoetan xedatzen ez denerako edo aurrekoen ordez aplikatu beharreko gainerako araudia. | Será de aplicación la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, así como la restante normativa que resulte de aplicación con carácter subsidiario o supletorio. |
| | |
| 21. oinarria. *Aurrekontuko partida.* | Base 21. *Partida presupuestaria.* |
| 1. Deialdi honetako dirulaguntzak emateko 2025. urtean indarrean dagoen aurrekontu-muga honako hau da: | 1. El límite del presupuesto vigente en el año 2025 para la concesión de las subvenciones de la presente convocatoria es el siguiente: |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: V62A-JWF2-IDQP-G6M8
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| a) Bostehun eta berrogei mila euro (540.000 euro), merkataritza-sozietate, sozietate kooperatibo, banakako enpresaburu eta profesionalentzat, 2025eko ekitaldiko partida honen kargura: G/0406/335106/44300 aurrekontu-partida, 2008/0041 proiektua. | a) Quinientos cuarenta mil euros (540.000 euros) con cargo a la partida presupuestaria: G/0406/335106/44300, proyecto 2008/0041, del ejercicio 2025, para la concesión de subvenciones a sociedades mercantiles y sociedades cooperativas, personas empresarias individuales y profesionales. |
| b) Zazpiehun eta hirurogeita hemeretzi mila ehun eta berrogeita hamar euro (779.150 euro), irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuei dirulaguntzak emateko, 2025eko ekitaldiko partida honen kargura: G/0406/335106/45100 aurrekontu-partida, 2008/0041 proiektua. | b) Setecientos setenta y nueve mil ciento cincuenta euros (779.150 euros) con cargo a la partida presupuestaria: G/0406/335106/45100, proyecto 2008/0041, del ejercicio 2025, para la concesión de subvenciones a personas jurídicas privadas sin ánimo de lucro. |
| Banaketa hori gutxi gorabeherakoa izango da, eta, Diru-laguntzen Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 43. artikuluaren 4. eta 5. apartatuen arabera, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru-diputatuaren foru-agindu bidez edo Euskara zuzendari nagusiaren ebazpen bidez aldatu ahal izango da, deialdia ebatzi baino lehen. Erabilgarri dauden kredituen adierazpena eta behin betiko banaketa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, gastu-espedientean egin beharreko aldaketak egin ondoren, baina argitaratze horrek ez du ekarriko ez eskaera berriak aurkezteko epea zabaltzerik, ez ebazteko beste epe bat zenbatzen hasterik. | Dicha distribución tendrá carácter estimativo, y, de conformidad con los artículos 43.4 y 43.5 del Reglamento de Subvenciones aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, podrá modificarse con anterioridad a la resolución de la convocatoria mediante orden foral de la diputada foral del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte o resolución del director general de Euskera. Se publicarán en el Boletín Oficial de Bizkaia la declaración de créditos disponibles y la distribución definitiva, tras realizar los cambios que fueren necesarios en el expediente de gasto, sin que tal publicidad implique la apertura de plazo para presentar nuevas solicitudes ni el inicio de nuevo cómputo de plazo para resolver. |
| 2. Aurrekontuei buruzko 2006ko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bateginaren 56.3 artikuluan ezarritakoaren arabera (foru-arau hori abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onartu zen), baldintza bat bete beharko da foru-dekretu honen babesean emaniko dirulaguntzak baliodun izateko: kreditu egokia eta nahikoa izatea kasuan kasuko ekitaldian, foru-dekretutik eratorritako betebeharrak finantzatzeko. Halakorik ez bada, balio gabe geratuko dira dirulaguntzak. | 2. De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 56.3 del texto refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria, aprobado por Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de diciembre, la validez del otorgamiento de las subvenciones concedidas al amparo del presente decreto foral queda sometida a la condición suspensiva de la existencia de crédito adecuado y suficiente para financiar las obligaciones derivadas del mismo en el ejercicio correspondiente. |
| 3. Deialdiko eskabide guztiak ebatzi ondoren, guztira dirulaguntzetarako emandako diru-kopurua aurrekontu-muga baino txikiagoa bada, gastu-baimenaren ezeztapena tramitatuko da, soberan den zenbatekoan. | 3. Si una vez resueltas todas las solicitudes de la convocatoria no se alcanzara el límite presupuestario máximo, se procederá a tramitar la anulación de la autorización de gasto por el importe sobrante. |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: V62A-JWF2-IDQP-G6M8
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| | |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: V62A-JWF2-IDQP-G6M8
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus